

# Ekintzen bilduma

## Bilan d'activités **2016**

Euskal kultur erakundearen biltzar nagusia | 2017ko martxoaren 18a  
Assemblée générale de l'Institut culturel basque | 18 mars 2017

# AURKIBIDEA

<b>EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA .....</b>	<b>3</b>
<b>1. KULTURA POLITIKA PUBLIKOAK LAGUNDU .....</b>	<b>5</b>
1.1. Euskal kulturaren tokia aztertu Ipar Euskal Herriaren antolaketa instituzional berria .....	5
1.2. AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat .....	6
<b>2. IKERKETA ETA BALIABIDE GUNE BAT SORTU ETNOLOGIA MAILAN .....</b>	<b>7</b>
2.1. Ahozko ondarearen bilketa eta balorapena.....	7
2.1.1. Eleketa programaren jarraipena .....	7
2.1.2. Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorapena.....	8
2.1.3. Alemaniako 1914-1918ko euskal presoen grabaketen balorapena .....	8
2.1.4. Euskal dantzari buruzko inbentario-fitxak .....	9
2.2. Euskal kulturaren inguruko gogoeta guneak sustatu.....	9
<b>3. EUSKAL KULTURARI SENTSIBILIZATU .....</b>	<b>10</b>
3.1. Arte eta Kultura Heziketa (AKH) eta Eskola Inguruko Jardueren (EIJ) eskaintza eta sarea egituratu, kudeatu eta garatu.....	10
3.2. Sentsibilizazio ibilbideen eta tresnen sorkuntza sustengatu.....	11
3.2.1. SOKA erakusketaren inguruko ustiapen pedagogiko baten sorkuntza eskolak laguntzeko .....	11
3.2.2. « Euskal kulturaren eguna » Baionako Maurice Ravel Kontserbatorioan .....	11
3.3. Eskolen arteko kultura proiektuak sustengatu.....	12
3.4. Mediazio eskaintzak eskaini publiko zabalarentzat eta sentsibilizazio egunak antolatu BILKETA sarearen kariatara.....	12
<b>4. KULTURA BITARTEKARITZAREN ZERBITZUKO IZANEN DEN ESKAINTZA NUMERIKOA GARATU .</b>	<b>15</b>
4.1. Euskal kulturaren baliabide eta zerbitzuen atariari buruz gogoetak egin .....	15
4.2. SOKA erakusketa hedatu eta transmedia bitartekaritza deklinatu.....	15
4.2.1. SOKA erakusketaren ibiltaritza .....	15
4.2.2. 2016ko hedapena .....	16
4.2.3. Transmedia bitartekaritzaren deklinazioa .....	17
4.3. Euskal kultur erakundearen internet atariaren kudeaketa eta eguneraketa.....	19
4.3.1. Informazio zaintzaren hedapena .....	20

4.3.2.	<i>Euskal kulturaren aktualitateen eta agendaren eguneraketa</i> .....	21
4.3.3.	<i>Jakintza entziklopediaren iturrien sailkatzea</i> .....	21
4.3.4.	<i>Kanpoko eragileen ekarpena</i> .....	22
4.3.5.	<i>Komunikazioa sareetan</i> .....	22
<b>5.</b>	<b>KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU</b> .....	<b>23</b>
<b>5.1.</b>	<b>Egitasmo egituratzaileak edo/ta berritzaileak lagundu</b> .....	<b>23</b>
5.1.1.	<i>Egitasmo egituratzaile bat, euskal dantzarendako anbizio berri baten alde</i> .....	23
5.1.2.	<i>KIMU : haur eta gazte publikoari zuzendutako arte eszenikoen inguruko formakuntzan parte-hartzeko deialdia</i> .....	27
5.1.3.	<i>Euskal zinemaren hedapena</i> .....	29
5.1.4.	<i>IBILKI : euskarazko antzerki programatzaileen sarean ezartzea</i> .....	31
<b>5.2.</b>	<b>Elkartekideei eta partaideei zuzendu laguntzak eta formakuntzak plantan ezarri</b> .....	<b>31</b>
<b>5.3.</b>	<b>Publikoak eta guneak hedatu</b> .....	<b>32</b>
5.3.1.	<i>Programazio kultural eta artistikoari laguntza</i> .....	32
5.3.2.	<i>Euskal kultura Akitanian hedatzea</i> .....	35
5.3.3.	<i>Mugaz gaineko kultura lankidetzak</i> .....	38
5.3.4.	<i>Euskal kultura munduan</i> .....	40
<b>5.4.</b>	<b>Elkartekideei banatu dirulaguntzak</b> .....	<b>41</b>
	<b>IPARRALDEKO HITZORDUAK DURANGOKO AZOKAN</b> .....	<b>56</b>

# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA

## **BILTZAR NAGUSIA**

308 kidek osatzen dute : 162 kultura elkartek eta 146 herrik (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

## **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

Euskal kultur erakundearen administrazio kontseiluaren osaketa, Mikel Erramouspé-ren lehendakaritzapean :

### ***Instituzioen taldea***

#### **Estadoaren ordezkariak :**

- Eric MORVAN jauna, prefeta
- Catherine SEGUIN, suprefeta
- Arnaud LITTARDI jauna, DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania-Berriaren ordezkariak :**

- Charline CLAVEAU-ABADIE, eskualde kontseilari
- Frédérique ESPAGNAC, eskualde kontseilari

#### **Pirinio Atlantikoetako Departamenduko ordezkariak :**

- Vincent BRU, departamendu kontseilari
- Max BRISSON, departamendu kontseilari

#### **Eusko Jaurlaritzako ordezkaria :**

- Aitziber ATORRASAGASTI, kultura zuzendaria

### ***Herrien taldea***

#### **Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikataren ordezkariak :**

- Kati MIRANDA anderea
- Jean-Claude IRIART jauna

### ***Kultura eragileen taldea***

#### **Euskal kultura eragileen ordezkariak :**

- Pierre-Paul BERZAITZ jauna
- Ximun CARRERE jauna
- Jean-Baptiste COYOS jauna
- Xabi ETCHEVERRY jauna
- Juhane DASCON jauna
- Xabi AMULET jauna
- Mikel ERRAMOUSPE jauna
- Agnès AGUER anderea
- Julien CORBINEAU jauna
- Filipe LESGOURGUES jauna
- Peio SOULE jauna

#### **Gomitatuak**

- Bernadette SOULE anderea
- Erramun BACHOC jauna

**KONDUETARAKO KOMISARIOA** ..... Michel FAGOAGA

## **BULEGOA**

- Lehendakaria ..... Mikel ERRAMOUSPE
- Diruzaina..... Peio SOULE
- Idazkaria ..... Juhane DASCON

## **TALDE PROFESIONALA**

- **Zuzendaria**..... Pantxoa ETCHEGOIN
- **Kontularitza / Idazkaritza** ..... Elixabet MORTALENA
  
- **Kultura politika publikoen aholkularitza saila**  
Politika publikoen arduraduna..... Clémence LABROUCHE  
(Ordezkarria, Maylis IRIART, ama-oporretan eta hezkuntza-oporretan ondotik)
  
- **Ikusgarrigintza saila**  
Egitasmo arduraduna ..... Frank SUAREZ  
Kultura arartekolaria..... Maia ETCHANDY  
(ama-oporretan 2016ko irailaren 28tik)
  
Misio karguduna ..... Marion LASTIRI  
(2016ko agorrilaren 29tik)  
- **Etnologia & kultura ondare inmateriala saila**  
Etnologia..... Terexa LEKUMBERRI  
Ahozko ondarearen artxibatze karguduna ..... Maite DELIART
  
- **Komunikazio eta multimedia saila**  
Multimedia egitasmoen arduraduna ..... Jakes LARRE  
eke.eus webgunearen animazio eragilea ..... Frederic BERRUET

# 1. KULTURA POLITIKA PUBLIKOAK LAGUNDU

## 1.1. Euskal kulturaren tokia aztertu Ipar Euskal Herriaren antolaketa instituzional berria

Euskal Herriko Hirigune elkargoak lurraldearen ekintza publikoen antolakuntzak aldatuko ditu eta hauen artean, euskal kulturaren aldeko politika publikoak.

EKE-k hogeita zazpi urtez lortu jakindurietaz, behar berrietaz eta biharko euskal kulturaren erronketaz gogoetatzeko, erakundeak barne lan bat egin du, 2016ko lehen sei hilabeteetan, DLA dispositiboa baliatuz. Desmartxa honi esker, lan taldea egituraren ibilmoldeaz gogoetatu da, garatu esperientzien balorapena egin du eta garatzekoak diren alorrak ikertu ditu.

Ondorioz, Euskal kultur erakundeak «*EKE, 25 urteko esperientzia euskal kulturaren zerbitzuko*» izeneko dokumentu bat ekoiztu du, bi hizkuntzatan (euskaraz eta frantsesez).

Hau, oroz gainera, iparraldeko hautetsiei igorria izan da, bai eta kultura partaideei ere. Sarean ere ikusgai da, [www.eke.eus](http://www.eke.eus) webgunean.

Honi datxikola, Herrien Arteko Sindikatak lan berezi bat galdegin dio EKE-ri, euskal kulturaren aldeko politika publikoen norabideak aztertzeko, aitzin egoeraren azterketa bat eginez alorrez alor.

Norabide hauek erakunde ezberdinak argitzen ahalko dituzte, eta oroz gainera Herri elkargo berria.

Ikerketaren helburuak dira :

- Euskal kulturaren ekintza publikoen esku-hartze perimetroaren azterzea, kultura eta arte adierazpen ezberdinentzat ;
- Egituratzeko moldeak argitan ezartzea, sorkuntza eta praktika, transmisio, balorapen eta hedapen sailetan, alor bakoitzarentzat erronkak finkatuz ;
- Politika publikoen norabideak sakontzea, euskal kulturaren sustapenarentzat, aztertuz zein erakundeek zer egin behar lukeen, kultura eskumenak nola partekatuak izanen diren eta zer nolako antolaketa eskatzen duen eragileen artean.

Lan honentzat, metodologia bat bidean ezarria izan da, segipen batzorde bat, erakunde ezberdinetako teknikariek eta EKE-ko administratzaile batzuekin, eta ezbaian, 80 bat kultura eragile galdezkatuak izan dira. Besteak beste, EKEk kanpoko bi adituei dei egin die : kultura politika publikoetan berezitua den Jean-Damien Collin-i, eta giza nahiz teknika baliabideen alorrean aholkularia den Marie-Dominique Iribarren-i.

EKEk bildumaren bertsio ezberdinak euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikatako eta 64 departamenduko Amaia Licheratçu eta Lea Etchegoyhen-ekin idatzi ditu, Jarraipen Batzordearen emendekin desberdinak kontutan hartuak izan daitezten.

2016ko agorrilan hasirik, 2017ko lehen hiru hilabeteetan bururatua izanen da.

## 1.2. AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat

### **Euskararen eta euskal kulturaren tokia segurtatu Departamenduak eramaten duen politikan, Arte eta Kultura Heziketaren (AKH) alorrean (*ikus 3.1. parte*)**

2016an, EKEk Departamendua lagundu du euskararen eta euskal kulturaren tokia azkartzeko eta bere iraunkortasuna sustatzeko Departamenduak eramaten duen politikan, Arte eta Kultura Heziketaren (AKH) alorrean, eta « *Plan Départemental d'Education Artistique et Culturelle* » (PDEAC) – « *Heziketa artistiko eta kulturalaren Departamenduaren Planoaren* » (PDEAC) barnean bereziki :

- Eskaintza eta sarea egituratuz :
  - ✓ labelizatuak diren eta AKH euskaraz egiten duten kultur eragileak identifikatuz eta erreperitorio batean bilduz ;
  - ✓ kultur eragileekin informazioa partekatuz labelizazio dispositiboetara eta « *Grandir avec la Culture* » deialdiari buruz ;
  - ✓ bere iritzia adieraziz labelizatuak izan nahi dutenei buruz, labelizatuak izan aitzin.
- Sarearen kudeaketa profesionalen inguruko topaketak antolatuz partaidetzan.
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) lagunduz AKH ibilbide baten sortzeko euskal dantza alorrean.

### **Euskararen eta euskal kulturaren tokia segurtatu « irakurketa publikoa » sarearen alorrean**

2011tik goiti, « *Bibliothèque Départementale des Pyrénées-Atlantiques* » (BDPA) –ren gerizan, EKEk bere gaitasuna ekartzen du irakurketa publikoa sarearen alorrean. Euskararen eta euskal kulturaren baloratzeko EKEk eskua hartzen du bi alor hauetan :

- Programazio kultural eta artistikoari laguntza (*ikus 5.3.1. parte*) ;
- Mediazio ekintzen antolaketa publiko zabalarentzat eta sentsibilizazio ekintzen antolaketa profesionalentzat, BILKETArekin partaidetzan (*ikus 3.5. parte*).

### **Euskararen eta euskal kulturaren integrazioa erraztu departamenduak ikus-entzunezkoaren eta zinemaren alde daraman politikan (*ikus 5.1.3. parte*)**

- 2016an EKEk « *l'Atalante* » zinegela laguntzen segitu du, euskal zinema Akitania mailan banatzeko esperimentazioan (diruz, ingenieritzan)
- Zinemaren eta ikus-entzunezkoaren garapenari zuzendu bilkuren animazioa, festibalen partaidetzarekin.

## 2. IKERKETA ETA BALIABIDE GUNE BAT SORTU ETNOLOGIA MAILAN

EKE-k etnopoloko labela eskuratu berri du 2017ko hastapenean : ikerketa-baliabide gune bezala ezagutua izanen da beraz hemendik goiti.

Oroitaraz dezagun baldintza batzu bete behar direla label horren eskuratzeko :

- kultura politika publiko bat ukan eta ikerketa zientifikoari uztartu : bi sail hauek betan eramatea behar beharrezkoa da ;
- tematika indartsu bat landu, honi animazio kultural-zientifikoak eta ikerketak lotuz ; delako tematikak interes aski zabala ukan behar du, etnopoloko erreferentzia bat bilaka dadin gai horretan nazio eta nazioarte mailan ;
- partaidetzak garatu erakunde zientifikoekin (CNRS, unibertsitate, ...), kulturalekin (museoak besteak beste) eta lurralde elkargoekin.

2016an, EKE-k hainbat urrats eman ditu ondare sailaren lehenesten dituen bi lan ardatzen indartzeko eta elgarri josteko : ahozko ondarearen bilketa/balorazioa alde batetik (*ikus 2.1. parte*), sorkuntza garaikideari buruzko gogoeta bestaldetik (*ikus 2.2. parte*). Urrats hauei esker, etnopolokoarenak diren ezaugarriak lortzen hasi da emeki emeki :

- sorkuntza/oroimena gogoeta laborategi bat izan ;
- sorkuntza/oroimena gaiaren inguruan baita ahozkoaren inguruan ikerketa programak sortu ;
- kulturala eta zientifikoa uztartzen duen politika bat aurreikusi.

Bestalde Eleketa programaren bidez bildu lekukotasunen ezagutarazteko, EKE-k plataforma numeriko bat sortu du : [mintzoak.eus](http://mintzoak.eus) (*ikus 2.1. parte*).

Euskal etnopolokoak 4 lan ardatz ukanen ditu : ahozkoatasuna, hizkuntza eta kultura, euskal kulturari buruzko ataria, ondarea eta sorkuntza (gai hau premiatsua izanen delarik).

Lan ardatz hauek partaidetza azkarren beharra agerian ematen dute (Bilketa, Euskaltzaindia, IKER-CNRS laborategia, Euskal Museoa, departamenduko artxibategia, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Akitaniako DRAC). Lan bilkura frango iragan dira joan den urtean, bai Akitaniako DRAC-ean, bai Baionan, aipatu partaide horiekin. Bestalde, EKE harremanetan sartu da Frantziako diren beste 8 etnopolokoetatik hiruekin (Billère-eko INOC, Carcassoneko GARAE eta Mane-ko museo-kontserbatorioa).

### 2.1. Ahozko ondarearen bilketa eta balorapena

#### 2.1.1. Eleketa programaren jarraipena

##### Ahozko memoriaren bilketa

Ahozko memoriaren bilketak bere bidea segitu du 2016an, Departamenduaren obragintzapean. 28 inkestetarik 27k jorratu dute iparraldean XX. mendearen bigarren zatian eragin duten mugimenduen historia, izan dadin kultura, erlijio, ekonomia, gizarte ala politika sailetan. Zehazkiago : euskarazko erakaskuntza (1) eta argitalpena (1), bertsularitza (1), euskal kantua eta musika (1), kooperatiben sorkuntza (2), Castors etxe-erakitzaitzen mugimendua (2), laborari munduaren aldaketa (8) baita Baiona Ttipiarena (1), hiri garraioena (1) eta



emazteen eta gizartearen bizi baldintzena (7), talde politikoen (1) eta sindikalismoaren (1) historia. Urteko 28. eta azken inkesta Beskoitzeko gatz-meatzetaz egina izan da.

### **Eleketa fondoaren balioztatze numerikoa**

Euskal kultur erakundeak mintzoak.eus ataria sortu du, 2007tik hona bildu ikus-entzunezko grabaketen publikoari ezagutarazteko. Plataforma honetan sartuak dira momentukotz :

- 2007-2008an bildu lekukotasunak (grabaketak eta hauei buruzko informazioak) ;
- « Itsasturiak » eta « SOKA » erakusketetan agertzen diren lekukotasun zatiak (250 orotara).

2017an, EKE-k lekukotasun gehiago sartuko ditu plataforma horretan.

### **Eleketa fondoaren balioztatze zientifikoa**

2010ean, Eleketak Donibane Lohizune-Ziburuko portuaren bilakaera eta itsasturien bizia (arrantzaleak, arrantzaleen emazteak, arrain-erosleak, itsas-ontzigileak, saregileak, kontserbategietako langileak, ...) jorratu zituen. Bilketa hau baloratu izan da Donostiako Untzi Museoko « Itsas Memoria » aldizkari numerikoan, azken alea itsas ondarearen memoriari eta ahozko iturriei dedikatua izanki.

DELIART, Maite : « Eleketa ahozko bilketa programa eta Donibane Lohizune-Ziburuko itsas munduaren inguruko lekukotasunak », Itsas Memoria. Euskal Herriko itsas gaiei buruzko aldizkaria, 8, Untzi Museoa, Donostia, 2016, 385-409 orr.

#### ***2.1.2. Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorapena***

2016an, Euskal kultur erakundeak Departamenduak numerizatzen dituen artxibo zaharrak tratatzen segitu du (deskribapena, dokumentazioa, datubase numerikoen sortzea eta osatzea).

Hiru fondo tratatuak izan dira eta bakoitzari doakion datubasea Departamenduko artxibo zerbitzuari igorria izan zaio :

- Morton Levine antropologo amerikanoaren artxiboak (5NUM22/1-87) : 1973an telebista emanaldi baten 7 ordu baino gehiagoko rush irudiak, zeinetan aurkeztua den ikerlariak 1960 hamarkadan (Makean eta Ahetzen) egin inkesta etnografikoa eta biologikoa.
- Gure Irratiako Entzun Ikus elkartearen artxiboak (4AV/1-8) : 17 ordu 1982-1983koak (bertsu-saio, euskal kantu eta musika).
- Léonard Berrogain-en fondoak (5NUM21/1-56), 9 ordu, Donapaleuko bizia erakusten duten ikus-entzunezko mutuak, 1930-1960 hamarkada bitartekoak.

#### ***2.1.3. Alemaniako 1914-1918ko euskal presoek grabaketen balorapena***

Lehen Mundu Gerla garaian, Prusiako Komisio fonografikoko hizkuntzalari eta etnomusikologoek Alemaniako preso-eremuetan zeuden presoak grabatu zituzten (kantu zati, narrazio), horien artean 10 euskaldun. 2014an eta 2016an, Euskal kultur erakundeak artxibo

soinudun hauen kopia numerikoa ukan ditu Berlingo Etnologia Museoaren eta Humboldt Unibertsitatearen eskutik. (*Xehetasun gehiago EKEko web atarian : [http://www.eke.eus/eu/kultura/ondarea/ondare\\_inmateriala/alemaniako-1914-1918ko-euskal-presoen-grabaketak](http://www.eke.eus/eu/kultura/ondarea/ondare_inmateriala/alemaniako-1914-1918ko-euskal-presoen-grabaketak)*).

2015-2016 ikasturtean, Euskal kultur erakundearen eta Mondragon Unibertsitatearen arteko partaidetzaren ondorioz, Aretxabaletako Ikus-entzun komunikazioko Elena Canas eta Ainara Menoyo ikasleek grabaketak ikertu eta *Maitia nun zira ?* dokumentala sortu dute, Eusko Ikaskuntza-Baionako Herriko etxearen bideo-dokumental saria jaso duena 2016ko abenduan. Bestalde, Maite Deliart-ek (EKE) soinu zahar hauei buruzko hedapen eta balorizazio ekintzetan parte hartu du :

- otsailaren 11n Donostian, Koldo Mitxelena zentroan, « *Euskal Herriko artxiboak munduan gaindi : nola eskura gure oroimen kolektiboa ?* », Maite Deliart eta Jakes Larre-rekin (EKE) ;
- urriaren 27an, Villabonan iragan Xenpelar Dokumentazio III. Jardunaldian, euskal kantagintzaren ondareaz ;
- abenduaren 2an, Irungo Amaia kulturetxean, *Maitia nun zira ?* dokumentala erakutsia eta ondotik mintzaldi-debatea.

#### **2.1.4. Euskal dantzari buruzko inbentario-fitxak**

Fitxa hauek lotuak dira Unescok 2003an izenpetu ondare immaterialari buruzko hitzarmenari. Hitzarmen honek kultura arloko bost sail lehenesten zituen (ahozkotasuna, ikusgarri biziduna, erritoak eta bestak, naturari eta unibertsoari lotu jakitateak, eskulanak) eta sail hauetako praktiken inbentario baten egitea gomendatzen. EKE lan honetan hasi da 2016ean, kultura ministeritzaren diru laguntza bat jaso duelako hortarako. Landu eta landuko dituen inbentario-fitxek Eleketa fondoa, eta bereziki dantza fondoa, aberastuko dute, ondoko bost gai hauek ikertuz : Xiberoko dantza-maisuak, Xiberoko errejentak, kabalkada-toberak, Besta Berri eta ihauteriak Lapurdin. 2017an, EKE-k lan hortan segituko du.

## **2.2. Euskal kulturaren inguruko gogoeta guneak sustatu**

Euskal kultur erakundeak 2012an sorkuntza eta ondareaz abiatu gogoetak segida bat ukan du 2016ko ekainaren 3an Baionako fakultatean iragan den mintzaldi-etabaida baten bidez. Honen gaia hauxe zen : « *Tradizioa, egia hutsa ote da ? Sorkuntzaren erronkak Euskal Herrian* ». Euskaldunak beren ohiduren preso ote liriateke ? Tradizioa itogarria ala sorkuntza eragile ote da ? Suerte ona ala arrasta bat ote da kultura berritu nahi dutenentzat ?

Galdera hauetaz eztabaidatzea, beren azterketak partekatzea eta ikusmoldeen trukatzeari proposatua izan zaie bost adituei :

- Birgit Ellinghaus, munduko musiketan berezitua ;
- Xabier Itçaina, Bordeleko Zientzia Politikoen Institutukoa, CNRS-ko ikerlaria ;
- Gérard Lenclud, etnologoa, CNRS-eko ohorezko ikerketa zuzendaria ;
- Anne-Christine Taylor, etnologoa, Pariseko Quai Branly museoan egona ;
- Pantxika Telleria, Euskal Herriko koreografoa, Elirale konpainiaren sortzailea.

Gaualdia Denis Laborde antropologoak kudeatu du (CNRS-EHESS).

### 3. EUSKAL KULTURARI SENTSIBILIZATU

#### 3.1. Arte eta Kultura Heziketa (AKH) eta Eskola Inguruko Jardueren (EIJ) eskaintza eta sarearen egituratu, kudeatu eta garatu

##### Eskaintza eta sarearen egituraketa

2016an, EKEk Arte eta Kultura Heziketa eta Eskola Inguruko Jardueretan (AKH eta EIJ) hari diren kultur eragileen eskaintza eta sarearen egituraketa segitu du :

- AKH euskaraz egiten duten kultur eragileen edota euskal kulturaren alorrean proposamen bat dutenen zerrendatzea segituz ;
- informazioa partekatuz kultur eragileekin labelizazio dispositiboaz eta « *Grandir avec la Culture* » deialdiari buruz ;
- labelizatuak diren eta AKH euskaraz egiten duten kultur eragileak erreperitorio batean bilduz.

Ekintza honen helburua bikoitza du :

- AKH edota EIJ-etan hari diren kultur eragileak xerkatzen dituzten lurralde elkargoak eta ikastetxeak laguntzea ;
- kultur eragileen ezagunpena laguntzea eta ikuspena handitzea.

##### Sarearen kudeaketa

##### Uztaritze | maiatzaren 11a | Euskarazko AKH-ren topaketa profesionalak

Kultur eragileen eta AKH saileko partaideen arteko harremanak bultzatzeko, eta AKH euskaraz egiten diren egitasmoen kopurua eta kalitatea garatzeko, lantalde bat osatu zen, EKErekin, Departamenduarekin, Akademia ikuskaritzarekin, EEPrekin, Canopé-rekin, Ikasekin eta lurraldeko teknikari eta pedagogia aholkulari zenbaitekin ere. Lantalde honek euskarazko AKH-ren topaketa profesionalak antolatu zituen 2016ko maiatzaren 11n Uztaritzen. AKHren definizioa eta egitekoak berriz landu gabe, topaketa honek, lehenik eta behin, AKH egitasmoak euskaraz egiten direnean ukan ditzaketen laguntza bereziak hobeki ezagutarazi nahi zituen. Horrez gain, lantaldeak / gogoeta leku, gai jakin batzuen inguruan, antolatuak izan dira : nola lagun dezake AKHk euskaraz irakaskuntza elebidunaren jarraipena ? ; arte proposamen bat ezagutzera ematean, nola atxik ikaslearen atseginareno nozioa, hizkuntza ongi ezagutzen ez badu ere ? ; edo, euskaraz egin AKH egitasmo batek nola bidera dezake ikaslearen kultura aberastea ? Parte hartzaileek laguntza dispositibo ezberdinei buruz ikuspen handiago bat ukan dezaten, lantaldeak « Euskarazko AKHko proiektuak gauzatzeko gida praktikoa » idatzi du eta egun haretan banatua izan da.

Bestalde, Canopé, Ikas eta IDB egiturekin partaidetzan, EKEk SOKA erakusketaren inguruko pedagogia modulu bat egin du (*ikus 3.2.1. parte*). SOKA erakusketa eta haren ustiapen pedagogikoa irakasleei aurkezteko gisan, « Euskal dantzen eguna » antolatu da, Donibane Lohizunen, 2016ko urriaren 5ean. Egun horren xedea irakasleak « ikasleen lekuan ezartzea » zen. Beraz, hogeita hamar bat irakasleak atelierretan parte hartu dute eta batzuk, gero, erakusketaren berriz ikustera jin dira, beren ikasleekin.

## **3.2. Sentsibilizazio ibilbideen eta tresnen sorkuntza sustengatu**

### ***3.2.1. SOKA erakusketaren inguruko ustiapen pedagogiko baten sorkuntza eskolak laguntzeko***

Canopé, Ikas eta IDB egiturekin partaidetzan, EKEk pedagogia modulu bat obratu du, irakasleei beren ikasleekin SOKA erakusketaren inguruan lan egiteko parada emateko. Modulu horrek harea ordulari itxurako urraspidea eskaintzen du :

- Hastapenean, dantza orokorki aipatu,
- Gaia euskal dantzara buruz zuzendu, SOKA erakusketaren bitartez,
- Ikuspegia berriz zabaldu, ikasgelako ekoizpen batera heltzeko.

Urraspideko hiru urratsetan proposatu jarduerak 2016ko sartzean indarrean sartu den oinarri komun berrian sartzen dira.

Modulu hori irakasleei aurkeztu zaie, Donibane Lohizunen, 2016ko urriaren 5ean antolatu den « Euskal dantzen egunean » (*ikus 3.1. parte*).

### ***3.2.2. « Euskal kulturaren eguna » Baionako Maurice Ravel Kontserbatorioan***

Laugarren urtearentzat, 2016ko urtarrilaren 20an, asteazkenez, Maurice Ravel kontserbatorioak eta Euskal kultur erakundeak euskal kulturari buruzko egun berezi bat antolatu zuten kontserbatorioan berean. Euskarazko antzerkia izan da aipagai eta bereziki pastorala (maskarada eta inauteriak ahortzi gabe).

Aipatzekoa da Philippe de Ezcurra musikari eta erakaslea, bai eta Gaël Rabas, Arte Dramatikoen arduradun pedagogikoa hor izan direla egun horren kudeaketaz arduratzeko.

#### **Egitaraua :**

- 14:00-15:00 : harrera eta Thierry Truffaut-en mintzaldia « Maskak antzerkian » gaiaren inguruan ;
- 15:00-17:45 : tailer kolektiboa Iker Ortiz de Sarate eta Philippe de Ezcurra-rekin, maskaradaren inguruan ;
- 18:00 : bilduma.

### 3.3. Eskolen arteko kultura proiektuak sustengatu

Helburua euskal kulturaren inguruko partaidetza ekimenen eta ikastetxeek sustatu partekatze momentuen sostengatzea da.

Ikastetxe-arteko 4 kultura proiektu sostengatuak izan dira 2016an :

- **Abesbatzen topaketak**

- FSE LA CITADELLE***

- Mindegi eta topaketa artistikoak, Zitadela eta Jean Pujo eskoleetako hurrekin (61 orotara), Contraccordiano laukotearekin (Kristof Iriart / Jérémie Ternoy / Didier Ithursarry / Nicolas Mahieux). Bi egun egonaldi Bidarrain (2016ko urtarrila) eta kontzertua 2016ko ekainaren 17an, Donibane Garazin.

- **« Egun kulturalak » deitu programaren laguntzea**

- BIGA BAI***

- Kultura eta arte topaketak, eskolatik kanpo, ama eskolatik CM2 mailako hurrei zuzendua. Helburua : eskola-arteko gurutzatzeak indartzea eta euskal kulturaren gozatzea, mindegi eta animazioen bitartez. Bi egun finkatuak izan dira, 2016ko martxoaren eta maiatzaren artean, bat kostaldean eta bestea barnekaldean.

- **Euskal antzerkiaren astearen ekitaldietan parte hartzea**

- EUSKAL HAZIAK***

- Helburua : eskola elebidunetan, euskal antzerkiaren egitea eta eskola desberdinetako hurrekin partekatzea. Ikusgarri ezberdinak emanak izan dira bost egunez (2016ko ekainaren 6tik 10era), Urruñako « Itsas Mendi » gelan.

- **« Eskolen arteko topaketak » deitu programari laguntza**

- UDA LEKU***

- Kultura eta arte topaketak, Iparraldeko eta hegoaldeko hurrei zuzendua (lehen maila eta kolegioa). Helburua : ingurumenaren, euskalkien, euskal kulturaren eta oroz gainera Xiberoko historiaren barnatzea. Egonaldiak urte guzian iragan dira Irabarnen, Xiberoan.

Bestalde, EKEk Manex Erdozaintzi Etxart eta Piarres Larzabal kolegioen arteko bi trukaketa egunen antolaketa sostengatu du. Karia hortara, Herri Soinu, Mila Kolore eta IDB elkarteetako kultura eragile desberdinek parte hartu dute.

### 3.4. Mediazio eskaintzak eskaini publiko zabalarentzat eta sentsibilizazio egunak antolatu BILKETA sarearen kariatara

Baionako herriak du BILKETA ataria garatu. Zerrendatuak diren euskal funtsetan sartzeko atea da : liburuak, aldizkariak, eskuizkribuak, artxiiboak, argazkiak eta Euskal Herriari buruzko edo euskarazko ikonografia, entzunezko edo ikus-entzunezko dokumentu oro. Bilduma horien aberastasuna agertzen duen liburutegi numeriko bat ere badu, non publikoari Euskal Herriko ondare idatzia eta ikonografikoa erakusteko xedea baita.

Baionako Herriak eta Mediatekak dute « euskal funtsa » izeneko ondare programa horren obratzea eraman. 2007-2013ko Estatu-Eskualde arteko Plan Kontratuan (CPER) sartzen zen. Lan andana bat (dokumentuen tratatzea, numerizatzeko kanpainak, hedatzeko tresna baten garatzea, liburutegi sare baten plantan ezartzea) abiatua da. Partaide diren liburutegiak sarean antolatuak dira. Horrela, praktika eta tresna profesionalak partekatzen dituzte eta beren euskal fondoak agerian emateko hitzartu ekintzak burutzen dituzte.

EKE proiektu horren partaide da, 2010az geroz, azken fasean esku hartzeko, erran nahi baita publiko zabalari zuzendu mediazio ekintzak eta profesionalen sarea euskal kulturari sentsibilizatzea xede duten ekintzak.

### **Profesionalak euskal kulturari sentsibilizatzeko egunak**

BILKETA proiektuak garrantzia handia ematen dio lurraldeko liburutegi-mediateketako langileak euskal kulturari sentsibilizatzeari. Horrek suposatzen du, besteak beste, profesionalak euskal kulturari sentsibilizatzeko egunak antolatzea.

Urte guziz, BILKETA sareko liburutegietako langileei beren iritzia eskatzen zaie, gaien hautatzeko. Orduan, egun horiek liburutegietako langileen beharrak eta gogoak agertzen dituzte, euskal kulturaren ezagutzaren aldetik. Bakoitzaren formatzea ahalbidetzen dute, bai eta, batez ere, bakoitzaren praktiken eta arazoen inguruan trukatzeko.

Egun horiek ostegunetan antolatuak dira, liburutegietako langileen ordutegiaren arabera errazago delakoan. Bilkurak sarea osatzen duten egitura desberdinen egoitzetan iragaten dira. Azkenik, gogoan hartu behar da gertakari guziaz euskaraz iragaiten direla, frantsesera egin aldibereko itzulpenarekin.

### Hazparneko mediateka | Maiatzaren 19a | Haur eta gazteen literatura euskaraz

Lehen egun hori Imanol Mercero adituaren (Galtzagorri elkartean haur eta gazteen literatura alorreko proiektu karguduna eta Berría egunkariko literatura kritikaria) mintzaldi batekin hasi da, « haur eta gazteen literaturaren egoera – hastapenetatik gaur egun arte » aipatuz. Ondotik, Iñaki Markotegi lehendakariak eta Jauregi Sukia idazkariak Galtzagorri elkartea eta elkarte horrek irakurketaren promozioaren alde burutzen dituen proiektuak aurkeztu dituzte.

Arratsaldean, Durangoko (Bizkaia) Berbaro elkartearen aldi izan da. Elkarte horrek bere egitura, misioak eta bereziki « Haur Literatur Aretoa » eta « Saguganbara » egitasmoak aurkeztu ditu. Gero, IKAS pedagogia zerbitzuko Aines Dufau zuzendariak eta Elise Dilet dokumentalistak haur eta gazteen euskarazko literaturaren azken hamar urte hauetako ekoizpenaren ikuspegi orokor bat eskaini diete parte hartzaileei.

Azkenik, eguna esperientzia trukatzeko batekin bukatu da. Alabaina, hor ziren liburutegietako langileek haur eta gazteen euskarazko literaturaren alorrean ezin baztertuzkoa iduri zitzaizen liburu baten aurkezteko eta gaiari buruz ideier trukatzeko parada ukan dute.

Baionako mediateka | Urriaren 6a | Euskara (« IRAKUR ! » zikloaren barnean antolatu egun profesionala)

Goizean, Xarles Bidegain (Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko irakasle-ikerlaria, lexikologian, dialektologian eta geolinguistikan berezitua) eta Céline Mounole (Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-ikerlaria, linguistikan berezitua) adituen mintzaldiari esker, parte hartzaileek euskararen jatorria eta historia ulertu ahala izan dituzte.

Arratsaldea euskararen gaur egungo egoeraren ikertzeari eskainia izan zaio. Battittu Coyos (Linguistika orokorreko doktorea eta Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean ordezko irakaslea) adituak egoera soziolinguistikoa eta euskararen normalizazioa aipatu ditu, besteak beste. Eguzki Urteaga (Soziologiako doktorea, ikerlaria, idazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea) adituaren mintzaldiari esker, hizkuntza politikari, hizkuntzaren estatutuari eta alor desberdinetan euskarak duen lekuari buruzko puntua egin ahal izan da. Bururatzeko, elkarretaratze hori Bilketa sareko liburutegietako langileen 2017ko formakuntza plangintzaren prestatzeko aukera izan da, hor ziren pertsonen beharrak eta nahiak bilduz.

Kanboko mediateka | Azaroaren 17a | Interneteko komunikabideak Ipar Euskal Herrian : bi adibide

Arratsalde bat iraun duen profesionalen arteko elkarretaratze hori Interneteko bi komunikabideren adibidetan oinarritu da. Alabaina, Goizeder Tabernak (Mediabask egunkariko erredakzioburua) euskarri anitzeko komunikabide berria den Mediabask eta Naiz plataforma aurkeztu ditu. Mikel Etxebarriak (Radiokultura irratiko koordinatzailea), aldiz, Radiokultura web irratia aurkeztu du.

**Publiko zabalari zuzendu ekintzak**

Baionako mediateka | Apirilaren 14a | Katalina de Erauso eta gaur egungo pastoralak(k) – Mahai-ingurua

2014az geroz landua den Zuberoko pastoralaren gaiaren bururatzeko, Katalina de Erauso pastoralari (2016ko ekainean aurkeztua, Baionan, eta gero irailean, Donostian) buruzko mahai-inguru bat antolatu da. Lucien Etchezaharretak animaturik eta Maite Berrogain (idazlea), Pantxika Urruty (taula zuzendaria), bai eta Nicole Lougarot eta Ihitz Iriart artistak bildurik, mahai-inguru horrek, ohituraren hurbilketa kritiko bati esker, aspaldiko antzerki molde horren bilakaeraren aztertzekeo parada eman du.

Haurrei zuzendu joko baten sortzea

Biarritzeko Ludo 64 elkartearekin partaidetzan sortu nahi zen pastoralaren mundua ezagutzeko karta jokoak, lehenik 2015eko pentsatua, gero 2016ra gibelatua, azkenean ez da sortuko, zoritxarrez. Alabaina, bilkura tekniko andana bat eginik ere, egile eskubideen aldetik ez da aterabide egokirik aurkitu ahal izan.

## **4. KULTURA BITARTEKARITZAREN ZERBITZUKO IZANEN DEN ESKAINTZA NUMERIKOA GARATU**

### **4.1. Euskal kulturaren baliabide eta zerbitzuen atariari buruz gogoetak egin**

Ondoko urteetan, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren inguruko baliabideen eta zerbitzuen egiazko atari bat obratzeko asmoa du.

Plataforma numeriko berri horren helburu nagusia publiko mota desberdinen informazio bilaketa erraztea izanen da, sartzeko bakar bat eskainiz euskal kulturaren inguruko dokumentu numerikoei buruz (testu, bideo, multimedia aplikazio, webgune edo lotura). EKEren gaur egungo webguneak ere modu bereko eskaintza egiten du, bereziki kultura biziari dagokionez. Zerbitzu atari berriaren asmoa bestelakoa da, halere : urrunago joan nahi du, kalitatezko baliabide tematiko gehiago eskainiz, publiko berezitu batzuentzat : adibidez, irakasleentzat (Heziketa Artistiko eta Kulturala) baina ere turistentzat (kultura turismoa) hurbilketa ezberdinak lantzekoak dira.

Hasiera batean, egoeraren benetazko azterketa bat egin izanen da, publikoen, baliabidetokien eta martxan diren esperientzien azterketa sakon batekin, horrelako tresna baten egingarritasuna neurtzeko. Alabaina, atari hori ez da sortuko, euskal kultura ondarearen bilketan, kontserbazioan edo baloratzean ari diren lurralde honetako eragileak ez badira inplikatu eta ez badira elkarrekin lanean aritzen.

Horregatik, 2016ko azken urte erdian, elkarrizketa bat egin ditugu solaskide desberdinekin, jakiteko [www.eke.eus](http://www.eke.eus) webguneko oraingo eskaintza nola baloratzen duten eta nolako bilakaera ikusiko luketen.

Denbora berean, EKEren atariaren erabiltzaileei beren iritzia galdetu diegu, sareko inkesta baten bidez.

### **4.2. SOKA erakusketa hedatu eta transmedia bitartekaritza deklinatu**

#### **4.2.1. SOKA erakusketaren ibiltaritza**

« SOKA, euskal dantzaren urratsetan », Euskal kultur erakundeak ekoiztua du, Gipuzkoako diputazioarekin eta Donostia 2016 Fundazioaren partaidetzarekin. Euskal dantza hobeki ezagutaraztea du helburu, publiko zabalari batez ere. Erakusketa berri honetan, lau hizkuntzatan (euskara, frantsesa, gaztelera, inglesa), 130 m<sup>2</sup>-ko eremuan, euskal dantzaren inguruko 400 ilustrazio baino gehiago daude kontsultagarri (argazki eta irudi bildumak, lekukotasun zatiak, soinu zatiak e.a.). Artxibo horiei gehitu behar zaizkie euskal dantzaren estetikaz edota alderdi sozialaz eginak izan diren bideo sorkuntzak.

Azpiraratzekoa da bestalde, EKE-k eraman « Eleketa » ahozko memoriaren bilketaren kariatara, euskal dantzaren inguruko anitz lekukotasun grabatuak izan direla eta horien zati frango ikusgai direla erakusketan.

Edukien aberastasun guziaz jendeen esku uzteko, ukipen-pantailak, formatu handiko telebistak, kuadro numerikoak, ordenagailuak eta bideo proiektzio eremuak baliatuak dira.



Halaber, erakusketaren partaide den Euskadiko Filmmategiko altxor batzu erakutsiak dira, bai eta bertze artxibo arraro frango ere (besteak beste František Pospíšil etnologo txekiarrak 1927an Baionan, Lekarozen eta Donostian egin filmak). Adibidez, argazki-kazetaritzaren sortzaileetarik bat izan den Robert Capa-k (Endre Friedmann, 1913-1954) 1951ko abuztuan Saran egin argazkien bost erreproduzio ikusten ahal dira. Balio handiko dokumentu eder hauek International Center of Photography de New-York zentroarenak dira.

SOKA erakusketa, gela konfigurazio ezberdinetara egokitzen ahal da, baldin eta oinarrizko baldintzak errespetatzen badira (130 metro karratuko gutieneko azalera - 2m55eko gutieneko altuera). Erakusketa gune handiagoentzat, osagai batzu gehitzen ahalko dira (argazki erakusketa, artxibo irudiak proiektatzeko gune bat, etab.).

Aurkezpen baldintzak eta espazioaren kudeaketa oraino gehiago hobetzeko asmoz, aldaketa batzu eginak izan dira 2016ko lehen urte erdian. Era berean, lekukoek eskaini edo baliabide-zentroekin negoziatu artxibo berri batzu gehituak izan dira erakusketan.

#### **4.2.2. 2016ko hedapena**

- **Donostia** | Otsailaren 4tik apirilaren 3ra | Koldo Mitxelena Kulturunea
- **Hazparne** | Apirilaren 9tik maiatzaren 7ra | Mediateka
- **Donapaleu** | Maiatzaren 14tik ekainaren 11ra | Mediateka
- **Bilbo** | Ekainaren 18tik agorrrilaren 31ra | Euskararen etxea
- **Angelu** | Irailaren 7tik 24ra | Mediateka
- **Donibane Lohizune** | Urriaren 1etik 30era | Dukontenia gela
- **Lons** | Azaroaren 8tik 31ra | Mediateka (Lagunt eta Maita elkartearen partaidetzarekin)

Erakusketaren aurkezpen bakoitzean, tokiaren arabera animazio egitarau bat antolatu ahal izan da, dantzari edo aditu batzuen parte hartzearekin. Horrela, kontestuaren arabera, mintzaldiak, tailerrak, performantzak edo ikusgarriak antolatuta izan dira. Ekitaldi horiek, tokiko antolatzaileek antolatuta izan dira edo horien partaidetzarekin.

#### **Donostia**

Maite Delia eta Jakes Larre-ren (EKE) mintzaldia euskal ikus-entzun artxibo zaharren balorizazioari buruz otsailaren 11n, Jon Iruetagoiena-ren « Nundik nora » mintzaldia otsailaren 18an, « Soka » erakusketaren bisita gidatua otsailaren 25ean (Juan Antonio Urbeltz eta Oier Araolaza-rekin), Xabier Itzainaren mintzaldia dantzatzeko musikari buruz ipar Euskal Herrian martxoaren 3an, Zarena Zarelako taldearen « Herrikoa » ikusgarria martxoaren 12an, Bilaka konpainiaren « Leihotik » sorkuntza martxoaren 19an eta Juan Antonio Urbeltz-en tailerra martxoaren 31n.

#### **Hazparne**

Xabier Itzainaren mintzaldia dantzatzeko musikari buruz ipar Euskal Herrian apirilaren 22an, dantza Hazparneko taldeekin apirilaren 30ean, Hazparneko eskola elebidunetako CM2 klaseen

emanaldia (Iparraldeko Dantzarien Biltzarreko JohaÑe Etxebest maiatzaren 4an klaseetan ibili ondoren), Bilaka konpainiaren « Leihotik » karrika ikusgarria maiatzaren 7an.

## **Donapaleu**

Roger Goyheneche-ren mintzaldia euskal dantzaz maiatzaren 27an.

## **Angelu**

Gabrielle Duplantier argazkilariaren « Dantza Izpiak » erakusketa. « Soka » erakusketaren bisita irailaren 10ean eta Oskar Alegriak « Soka » erakusketarentzat sortu laburmetraien proiektzioa irailaren 13an.

## **Donibane Lohizune**

Erakusketaren bisita gidatua Sustrai Colina bertsulariarekin urriaren 6an, bisita bat frantsesez urriaren 13an eta Begiraleak taldearen dantza ikuskizuna urriaren 2an. Bestalde, Roger Goyheneche-k euskal dantzari buruzko mintzaldi bat eskaini du eta Kukai konpainiak ikusgarri bat urriaren 29an.

## **Lons**

Lagunt Eta Maita elkarteak euskal dantzaren inguruko erakustaldi bat antolatu du azaroaren 12 eta 26an, bai eta abenduaren 10ean ere.

*Xehetasun gehiagorentzat : [www.soka.eus](http://www.soka.eus)*

### **4.2.3. Transmedia bitartekaritzaren deklinazioa**

SOKA-ren inguruan urratsez urrats antolatu nahi dugun transmedia bitartekaritza estrategiaren arabera, bisitariak ez du bakarrik erakusketaren « esperientzia fisikoa » ukanen. Deskubritze hori lagundu behar dugu, bai bisita aitzin, bai bisitaren ondotik. Helburua da biziki publiko ezberdinen interesa piztea.

Hori dela eta, transmedia dispositiboak erakusketan gutti edo aski aipatzen diren gaien deskubritzeko halako sarbideak dira.

## **Soka.eus, erakusketaren webgunea**

Webgune hau [www.eke.eus](http://www.eke.eus) plataformaren barnean aterpetua da. Kultura nortasun propio azkar batekin, lau hizkuntzatan eskainia (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez), funtzio ezberdinak betetzen ditu, bai erakusketaren bisitaren aitzin, bai eta ondotik ere.

Hala nola, publikoari xehetasunak ematen dizkio erakusketa bisitatzeko tokiei, egunei eta ordutegiei buruz. Halaber, deskubritze modalitateak, animazioen egitarauak eta promozio argazkiak eskaintzen ditu.

Bestalde, 2016ko martxoan irakasleei zuzendutako atal bat estreinatu dugu. Atal berri honek erakusketaren ustiapen pedagogikoa egiteko hainbat baliabide biltzen ditu. Extranet bat da, hots bakarrik irakasleak sar daitezke bertan.

Baliabideak publiko zabalaren esku uzten dira ere. Adibidez, « Eleketa » programaren kariatara, euskal dantzaren gaiaren inguruan bilduak izan diren lekukotasunak (64 pertsona elkarrizketatuak) baloratuak izan dira bideo zati batzuen bidez [www.soka.eus](http://www.soka.eus)-eko atal batean.

### **« Lehen urratsa » : euskal dantzaren transmisioari buruzko web-dokumentala**

Euskal kultur erakundeak galdeginik, Radiokultura web-irratiko kazetariak eta Johan Morin argazkilaria Ipar Euskal Herriko sei dantza eskoletako erakasle eta ikasleengana joan ziren 2015eko neguan. Bildu zituzten lekukotasunak, irudiak eta soinuak, « Lehen urratsa » izeneko web-dokumentalean argitaratu ditu EKE-k. Egitasmo hau SOKA erakusketaren osagarri da.

Helburua bikoitza zen :

- Ipar Euskal Herriko haurrentzako dantza eskoletan egin soinu grabaketan eta argazkien bidez, euskal dantzaren transmisioa agerian uztea ;
- Dantza eskolek daramaten lanaren baloratzea eta promozionatzea.

Sei herritan ibili ziren Radiokultura-ko kazetariak eta Johan Morin argazkilaria :

- Hendaia (Akelarre taldea)
- Baionan (eskola-denboratik kanpoko kurtsoa)
- Bardozen (Lagunekin taldea)
- Baigorri (Arrola taldea)
- Itsasun (Ataitze taldea)
- Barkoxen (Etxahun elkarte)

Bi oren elkarrizketa baino gehiago (euskaraz eta frantsesez) eta 100 bat argazki hautatu dira web-dokumental baten itxura duen « Lehen urratsa » bilduma interaktiboaren osatzeko.

*Gehiago jakin : <http://lehenurratsa.soka.eus>*

## **SOKA erakusketari buruzko aplikazio ludiko bat**

« SOKA, euskal dantza » aplikazioa Azkue Fundazioa eta Euskal kultur erakundearen arteko elkarlanean garatutako, euskal dantzen mediazio eta transmisio proiektu orokor batean kokatzen da. EKEk 2015ean ekoiztu SOKA erakusketa ibiltarian oinarritua da.

Euskal dantzen inguruko edukiak modu didaktiko, atsegin eta dibertigarrian aurkeztu nahi izan dira eta horregatik aplikazioak bi atal ditu : euskal dantzen inguruko galdera-erantzunen jokoak eta Euskal Herri osoko dantza ekitaldien egutegia. Aplikazioa euskaraz garatuta dago eta doan eskura daiteke. « Soka » aplikazioaren bidez, modu erraz eta atseginean euskal dantzari buruz gehiago ikas daiteke.

Hauetako atal batzuk aplikazioaren bi atalak :

1/ Alde batetik, euskal dantzen inguruko galdera-erantzunen jokoak. Jokoak lau maila ditu : Kautera, Bolanta, Aurreskularia eta Dantzamaisua. Erabiltzaileari euskal dantzen inguruko galderak aurkeztuko zaizkio eta erantzun zuzena zein den erabakitzeko lau aukera desberdin. Galdera bakoitzean eduki osagarria aurkituko du, irudi edo azalpenen bat. Zuzen erantzutako galdera bakoitzak puntu kopuru jakin bat lortuko du eta hauek gehituko dira, erabiltzaileen arteko sailkapen zerrenda osatuz. Edukiak SOKA erakusketa ibiltarirako sortutakoetan oinarrituak dira. Adin guzietara zuzendutako jokoak da, maila bakoitzean galderen zailtasuna handitzen delarik.

2/ Bestalde, aplikazioak Euskal Herri osoan zehar burutzen diren ohiko euskal dantza ekitaldi nagusien egutegia erakusten du. Lekua eta kokapen geografiko eta dataren arabera agertzen dira. Horrela, mapa batean bilatuta jakin ahal izango da egunero Euskal Herriko zein tokitan izango den euskal dantzarekin erlazionatutako ekitaldi, jai edo ospakizunen bat. Ekitaldi bakoitzaren inguruko informazioa eskaintzen da. Atal hau [www.dantzan.eus](http://www.dantzan.eus) webgunearan laguntzarekin osatu da.

Aplikazioa, mugikor eta tabletetan erabilgarri da, Android eta iOS sistema eragiletan.

*Gehiago jakin : <http://www.soka.eus>*

### **4.3. Euskal kultur erakundearen internet atariaren kudeaketa eta eguneraketa**

#### **2016ko estatistikak**

- Bisitak : 308 166 (2015ean baino % 5,56 gehiago)
- Bisita bakarrak : 226 913 (2015ean baino % 7,6a gehiago)
- Ikusitako orriak : 926 537 (2015ean baino % 1,45a guttiago)

### 4.3.1. Informazio zaintzaren hedapena

Euskal kultur erakundeak 2012an hasi administrazio eta zuzenbide alorreko informazio zaintza jarraitu du 2016an, horren helburuak hauek direlarik :

- **Euskal artista eta elkarteentzat :**
  - ✓ 1901eko legepean diren elkarteentzat baliagarriak izan daitezkeen iturrien xerkatzea, izan fiskalitate, legedi edo antolaketa mailan.
  - ✓ Finantziario aukeren aurkitzea, kultura egitasmoen gauzatzeko (laguntzen gida, deialdiak), bai eta hedapenerako ere.
  - ✓ Kultura elkarteak edo euskal artistak interesatzen ahal dituzten formakuntza eskaintzak biltzea (Euskal Herrian eta Frantzia), bai eta Euskal Herriko lan eta ikastaldi eskaintzak ere.
- **Programatzaile publiko eta pribatuentzat :**
  - ✓ Ipar Euskal Herriko kultura eragileen eta elkarten (erakundeak, elkarteak, artistak, pertsona lagungarriak, etabar) errepertorioa.
  - ✓ Ipar Euskal Herriko eskaintza artistikoaren eta kulturalaren agenda (erakusketak, ikusgarriak, animazioak, mintzaldiak, etabar).

Bilketa lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko « Kultura eragileak » atalan agertzen da sailkaturik. Tokiko kultura biziaren eragileei bereziki zuzendua den egiazko lanabes-kutxa dugu hau.

Bildutako informazioa espazio horretako atal desberdinetan aurki daiteke, hots :

- **Profesionalen albiste haria :** kultura eragileei zuzentzen diren albiste aukeratu batzu (deialdiak, lehiaketak, formakuntzak, lan eskaintzak...) boletin baten bidez hedatzen direnak, astero eta hilabete behin (700 harpidetu baino gehiago).
- **Kultura eragileen errepertorioa** (gaika sailkatuak diren festibalen zerrenda batekin, bai eta ikusgarri gelen zerrendarekin ere).
- **Ipar Euskal Herriko sorkuntzen katalogoa.**
- **Kultura biziaren behatokia :** euskal kulturaren agenda eta Iparraldeko kultura eragileak eta toki artistikoak herrika eta herri elkargoka sailkatuak (agenda & albisteen artxiboak).
- **Formakuntzen eta topaketen txostena:** EKEk kultura elkarteentzat antolatu jardunaldiei, tailer tematikoei eta formakuntzei buruzko dokumentuak biltzen ditu.
- **Euskal kulturari mugatzen ez den webografia** profesional generalista bat txertatua da [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko « Kultura eragileak » atalean. Sailka (ikusgarrigintza, musika, arteak...) eta gai transbertsalen arabera (lanbideak eta formakuntzak, kudeaketa, fiskalitatea eta zuzenbidea, kultura politikak...) sailkatuak diren lotura profesionalen aurkitegi bat da.
- **« Liburutegi/mediatekei zuzendu kultura aktibitateen sareko gida »** bat eskuragarri da ere irakurketa publikoko eragileentzat. « Sorkuntzen katalogoa »-ren osagarri izan daiteke. Horrela, programatzaileek bi tresna baliagarri badituzte, mintzalariak edo euskal ekoizpen artistiko eta kulturalak bilatzen dituztelarik.

### **4.3.2. Euskal kulturaren aktualitateen eta agendaren eguneraketa**

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, Euskal kultur erakundeak egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Agenda horretaz gain, aktualitateari buruzko lan berezi bat egiten du ere, erregulariki eguneratzen den albiste hari baten bidez. Paraleloki, zaintza lan horrek, euskal kultura eragileen, elkarten eta egituren errepertorio publikoa eguneraturik mantentzeko aukera eskaintzen du. Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira : horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri elkargoka, gaika edo denboraldika.

Aipaturiko lan hori, euskal kultura biziaren behatoki baten lana da. [www.eke.eus](http://www.eke.eus) web atariko atal batek herri elkargoka eta herrika sailkatu datuen ikusteko parada eskaintzen du.

2016 an :

- 1275 gertakari sartuak izan dira [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko agendan.
- Horietan 1070 izan dira Lapurdin, Baxe-Nafarroan eta Xiberuan iragan gertakariei lotuak. Gaineratekoak, Hego Euskal Herrian edo Euskal Herrikan kanpo iragan gertakariei lotuak izan dira.

Bestalde argitaratzen ditugun Xan Airek hemengo kultur eragileei egin elkarrizketek panorama hori molde kualitabo batez osatzen dute. 70 baino gehiago eginak izan dira 2008tik hona.

2016ko elkarrizketak :

- Thierry Truffaut
- Manex Pagola
- Amets Lahetjuzan
- Amaia Hennebutte
- Filipe Lesgourgues
- Beñat Chassevent
- Mixel Ducau
- Lierni Elortza
- Jurgi Ekiza

### **4.3.3. Jakintza entziklopediaren iturrien sailkatzea**

Publiko zabala informatzea baliabide ezberdinak sailkatuz, kultura, hizkuntza eta ondare gai nagusiak sakontzeko aukera eskainiz (ondare material eta immateriala, euskara, bertularitza, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, etab). Hori da EKEk finkatu helburua, oinarrizko jakintzen erreferentzietako iturriak sailkatuz (alde historikoak, soziologikoak, teknikoak, etab). Konkretuki, sailkatze horren egiteko, ezinbesteko baliabide-iturri nagusiak gaika zerrendatuak dira. Bestalde, gaikako webografiak (web loturen zerrendak) proposatuak dira, aktualitatearen arabera erregulariki eguneratuak direnak. Bestalde, gaikako webografiak (web loturen zerrendak) proposatuak dira, aktualitatearen arabera erregulariki eguneratuak direnak ere.

Zaintza lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko atal tematikoetatik kontsultagarriak dira (dantza, musika, bertularitza).

#### **4.3.4. Kanpoko eragileen ekarpena**

Euskal kultur erakundearen nahia da, Euskal Herriko biztanleek parte har dezaten beren kulturaren ezagutarazteko tresnen sortzean, bereziki [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariaren bitartez. Karia hortara, aipagarriak dira adibidez, sarean erregulariki ezarriak diren Joseph Maris musikariaren partizioak (400 bat dokumentu baino gehiago, urrik publikoaren esku utziak direnak). 2016an, Manex Pagola-ren 100 doinu (mp3) baino gehiago jarri ditugu eskuragarri, gero eta arrakasta handiagoa biltzen duen erreperitorio horretan.

Tokiko komunikabideekin egin elkarlanak ere kultura informazioa sarean hedatzeko parada eskaintzen du. Adibidez, [eke.eus](http://eke.eus) atariko agenda Euskal Jaurlaritzaren Kulturklik plataforman baliatua da ere. Horrek, ipar Euskal Herriko kultura bizia hego Euskal Herrian hobeki ezagutarazten laguntzen du. 2016an, datu trukaketa horren automatizatzeko urratsak aztertuak izan dira.

#### **4.3.5. Komunikazioa sareetan**

2015ean ere, Euskal kultur erakundea sare sozialetan present egon da (bereziki Facebook eta Twitter-en). Tresna horiek egunero segitzea ezinbestekoa bilakatu da besteak beste EKEren irudiaren kudeatzeko. Horrek, komunitate animazio baten plantan ezartzea eskatzen du (community managing).

Bestalde, EKE emailing pertsonalizatuan oinarritu da komunikazio zehatz batzuen egiteko sare jakin batzuetan (publiko zabala, prentsa, artistak, elkarte-kideak, etab).

EKEk bi berripaper mota baliatzen ditu :

- **Bat publiko zabalari zuzendua**, astero euskal kulturaren agendarekin 2000 kontakturi baino gehiago igorria dena (erabiltzailearen hizkuntzaren arabera, euskaraz ala frantsesez).
- **Berripaper « profesionala »** tokiko kultura eragileei zuzendua. Bertan, artisteentzat edo kultura egituren funtzionamenduarentzat baliagarriak diren informazioak biltzen dira. Hilabetean behin igortzen da 800 kontakturi gutti gora behera (erabiltzailearen hizkuntzaren arabera, euskaraz ala frantsesez).

2016an berripaper guzien diseinuak berriak izan dira.

## 5. KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU

### 5.1. Egitasmo egituratzaileak edo/ta berritzaileak lagundu

#### *5.1.1. Egitasmo egituratzaile bat, euskal dantzarendako anbizio berri baten alde*

2014ko urte bukaeran, euskal dantza elkarteek Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren egitasmo berria eta haren estatutu berriak bozkatu dituzte. Denbora berean, Euskal Herria 2015-2016 Lurralde Kontratuari laguntza baten eskaera egin zaio, egitasmo horrentzat. 2016an, egitasmo berri hori gauzatu izan da 3 ardatzen inguruan :

- Transmititu eta sentsibilizatu
- Lagundu eta kontseilatu
- Bildu eta sortu

#### **Transmititu eta sentsibilizatu**

##### Ikasketa ibilbide baten ontzea

Maurice Ravel Euskal Itsas Hegiko Musika Kontserbatorioko dantza sailaren parte hartzearekin, euskal dantzen ikasketa ibilbide baten oinarriak finkatuak izan dira, eskolaldiko 3 urratsei dagozkien 3 ziklotan antolaturik :

- lehen mailako eskola : 1. zikloa (iniziazio ziklo bat barne hartzen duena) ;
- kolegioa : 2. zikloa ;
- lizeoa : 3. zikloa.

Egitura honen berezitasuna ondoko posibilitateetan oinarritzen da :

- 1. zikloko klase guziak eta 2. zikloko eta 3. zikloko klaseen parte bat, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak formatu borondate oneko irakasleek ematen dituzte ;
- 2. ziklotik goiti, bereziki motibatuak diren dantzarietara, euskal dantza elkarteetan eman irakaskuntzari gehitzen zaion irakaskuntza eskaintzen zaie.

##### Borondate oneko irakasleen formakuntza

2015/2016 eskola urtean, Baionan eta Biarritzen : borondate oneko euskal dantza irakasleen formakuntza bat plantan ezarria izan da Maurice Ravel Kontserbatorioaren sostenguarekin. Klase horien segitzeko, 24 gaztek izena eman dute eta formazioaren ondotik agiri federal bat emana izan zaie.

Goi mailan praktikatzeko formakuntza sareak (euskal dantza elkarteetan eman irakaskuntzari gehitzen zaion irakaskuntza)



2015/2016 ikasturtean, 4 dispositibo martxan ezarriak izan dira :

- Maulen : Xiberoko dantzako Master Class klasea eskaini da (Xiberoko 4 lizeoekin garatu partaidetza baten karrieta), leheneko eta terminaleko 18 ikasleri zuzendurik (asteroko funtzionamendua) ;
- Baionan : Zabala modulua3 (dantza klasikoa eta euskal dantza) bi klasetan banatu 50 dantzariri zuzendurik (asteroko funtzionamendua) ;
- Irisarrin : Zabala modulua4 (dantza klasikoa eta euskal dantza) bi klasetan banatu 25 dantzariri zuzendurik (asteroko funtzionamendua). Irisarriko klase horiek Irisarriko herriko etxearen eta hango dantza taldearen partaidetzarekin antolatu dira ;
- Hendaian : Euskal dantza modulu osagarria, Maurice Ravel Euskal Itsas Hegiko Musika Kontserbatorioan dantza klasikoan ari diren 25 dantzariri zuzendua. Dantzariak bi klasetan banatuak dira (asteroko funtzionamendua).

4 dispositibo horiek berriz abiatu dira 2016-2017 ikasturtean.

#### Euskal dantza elkarteetan eman formakuntzen laguntzea

- 2015/2016 eskola urtean, Baionan : « Katalina de Erauso » pastoraleko dantzarien prestatzea. 15 dantzari formakuntzan.
- Ordainduak diren irakasle batzuk eman klaseen ordaintzea. Zazpi elkarte hunkiak dira : Akelarre, Hergaraiko Izarrak, Ikasleak, Jeikadi, Lagunekin, Maritzuli, Orai Bat. Klase gastuen zati baten ordaintzea eginga izanen da 2016-2017an ere.

#### Ikastaldiak

- 2016ko urtarrila : Xiberoko dantzen Master class bat Bilaka kolektiboarentzat (4 parte hartze) ;
- Maiatzaren 28a, ekainaren 18a eta urriaren 29a : xiberoko dantzen inguruko formakuntza Maulen, 30 dantzari heldu ;
- Azaroaren 5a eta abenduaren 2a : xiberoko dantzen inguruko Master class bat Bilboko Dantzerti zentroan, 50 dantzari.

#### Eskoletako sentsibilizazio lana (PAC egitasmo kultural eta artistikoa duten gelak)

- 2015/2016 ikasturtea : 10 egitasmo burutu dira (121 oren, 320 ikasle) ;
- Martxoaren 23a eta urriaren 5a : irakasleak dantza jauziei sentsibilizatzea ;
- 2016/2017 ikasturtea : 18 egitasmo abiatu dira (216 oren, ikasle).

#### « Publiko orori » zuzendu sentsibilizazioa

- 2016ko uztailaren 12a : sentsibilizazioa euskal dantzari aisialdi zentroetan, 20 haur ;
- 2016ko uztailaren 18tik 22ra : euskarazko aisialdi zentro baten animazioa Xiberuan, 25 haur ;

- 2016ko azaroaren 17 eta 21a : maskaradari buruzko mintzaldiak Adunan eta Larraulen (Gipuzkoa) ;
- « Soka » erakusketaren inguruko pedagogia ustiatzearen modulo baten sortzea ;
- Martxoaren 5a eta abenduaren 27a : IDBren « ikasketa ibilbidea »-ren aurkezpena Bilbon eta Iruñan. Hego Euskal Herriko 50 dantza erakasle eta dantza elkartekiderek.

## **Euskal dantza elkarteak lagundu eta haien arduradunei aholkuak eman**

### Euskal dantza elkarteek eraman ekoizpen egitasmoen laguntzea (Euskal kultur erakundearen / Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren sostengua)

- Polliki elkarte (Luhuso) : Zortzigarren probintzia ikusgarriaren sorkuntza.  
*Hedapena ekainaren 11 eta 12an, Luhuson.*
- Izartxo elkarte (Uztaritze) : « Akelarre » antzezlanaren sorkuntza.  
*Hedapena irailaren 8an Herri Uzta festibalaren kariatara.*
- Hergaraiko izarrak elkarte : Hergaraiko ihauterien antolaketa.  
*2016ko udaberria.*
- Orai Bat elkarte : Baionako ihauterien antolaketa.  
*2016ko udaberria.*
- Leinua eta Lagunekin elkarteak : laguntza « Hatsa » ikusgarriaren sorkuntzari.  
*Hedapena Donapaleun 2016ko abenduan eta Luhuson 2017ko udaberrian.*

### Hedapena laguntzea

- Maiatzaren 21ean Luhuson : Maritzuli konpainiak Hergaraiko Izarrak eta Xinkako elkarteekin eskaini « Lau urrats eta kitto » ikusgarriaren programazioa. 100 ikusle.
- Ekainaren 11 eta 12an Luhuson : Luhusoko Polliki elkartearen « Zortzigarren probintzia » ikusgarriaren programazioa. 456 ikusle.

### Proiektu federatzaile batzuen antolaketa

- Maskatrük dispositiboa : dantza taldeen mugaz gaineko birazkatzea :
  - ✓ Martxoaren 12 eta 13an : topaketa Iduze-Mendi (Xiberua) eta Elgoibarko (Gipuzkoa) taldeen artean ;
  - ✓ Martxoaren 19 eta 20an : topaketa Larraineko taldearen (Xiberua) eta Iruñako (Nafarroa) Ortzadar taldearen artean.
- Maiatzaren 29an Donibane Lohizunen : Dantzari Ttikiren antolaketa (Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak, Begiraleak elkarteak eta Donibane Lohizuneko Herriko Etxeak elkarrekin antolatua). 1 200 dantzari, 1 000 ikusle.
- Urriaren 1a : Dantzari Egunaren antolaketa (Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak, Orai Bat-ek, EDB-k eta Baionako Herriko Etxeak elkarrekin antolatua). Euskal Herriko 7 probintzietako 500 dantzari, 600 ikusle.

## Laguntza proiektu sinergikoei (elkarrekin antolatu klaseak, elkarrekin ekoiztu ikusgarriak...)

« Dantzan sarean » dispositiboaren plantan ezartzea (dantza elkarteen sarean ezartzea hurbiltasun geografikoetatik, kulturaletatik edo artistikoetatik abiatuz) BAB eremuan.

### Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren webgunean eskuragarri diren baliabideak

- Mediateka numeriko bat, non Euskal Herriko dantzen musikak kitorik telekargatzen ahal baitira (ehun bat titulu eskuragarri) ;
- euskal dantza elkarteen jardueri (ikusgarriak, bereziki) buruzko informazioen argitaratzeko ahala ematen duen agenda ;
- euskal dantza elkarteen fitxategiaren eguneraketa.

### **Bildu eta sortu, Bilaka poloaren jardueren bitartez**

#### Bilaka proiektua

Bilaka Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren koreografia ekoizpen poloa da. Haren helburua erreferentziatzeko euskal dantza ikusgarriak sortzea da. Euskal dantzaren estetika guzietan irekia izanik, Bilaka artista kolektiboa da, maila oneko euskal dantzari amaturrei eta profesionalei irekia. Musika tradizionalerako musikariei ere irekia zaie. 2015ean sortu ikusgarria hiru parte autonomoz osatua da :

- « Zaharrak berri », koreografia : Gari Otamendi ;
- « Abbadia », koreografia : Jon Maya ;
- « Negua », koreografia : Mathieu Vivier.

2016an ere, 2015eko ekoizpenaren hedapenak segitu du :

- Triptikoa hiru aldiz proposatua izan da : martxoaren 26an Baionako antzokian, irailaren 17an Angeluko Quintaou antzokian eta azaroaren 13an Biarritzeko Kasinoan.
- « Negua » ikusgarria 5 aldiz eskainia izan da bere aldetik : maiatzaren 21ean Maulen, maiatzaren 28an Saran, ekainaren 21ean Baionan eta uztailaren 1ean Lekornen (EHZ festibala).
- « Abbadie » eta « Zaharrak Berri » sorkuntzak aldiz abenduaren 11n programatuak izan dira Donibane Lohizunen.

Hedapen horretaz gain, Bilakak Ihintza Irungaray eta Nathalie Vivier-en koreografia duen « Leihotik » aitzineko obra aurkezten segitu du, hala nola maiatzaren 7an Hazparden, ekainaren 10ean Uztaritzen eta abuztuaren 15ean Heletan.

Dantzari gazteei hilabeteroko formakuntza bat (otsailetik ekainera) proposatua izan zaie (Zabala modulotik bereziki), « Leihotik »-en koreografia ezagut eta landu dezaten. 20 dantzarik parte hartu dute.

Bestalde, Bilakako dantzariak dantza tailerrak proposatu dituzte, Biarritz Culturek eta Malandain Ballet Biarritzek azaroaren 11, 12 eta 13an antolatu « Rendez-vous basque » izeneko hitzorduaren kariatara.

Azkenik, Bilakak ekonomia alorreko eragileen aldeko ikusgarri bat eskaintzeko proposamena ukan du martxoaren 30ean Biarritzeko Enbaxadoreen aretoan.

### Bilaka Xiberuan

Bilaka koreografia zentroaren bitartez abiatu esperimentazioan oinarriturik, JohaÑe Etchebestek Xiberuko dantzari bakoitzaren dantza taldeko proiektuen osagarri izan daitezken proiektu artistikoetan parte hartzea galdetu die.

Horrela, Pariseko udazkeneko festibalaren eskaera bati erantzunez, « Ohiberritze » ikusgarria aurkeztua izan da Châtelet antzokian irailaren 17an, Donostiako Kursaal-en abenduaren 18an eta Bilboko Arriaga antzokian otsailaren 18an.

Formatuak izan diren zazpi dantzariak proiektu berri batean inplikatuak dira orain, besteak beste, San Frantziskoko Basque Center zentroan aurkeztua izanen dena 2018ko otsailan.

### ***5.1.2. KIMU : haur eta gazte publikoari zuzendutako arte eszenikoen inguruko formakuntzan parte-hartzeko deialdia***

Donostia 2016k, Donostia Kulturak eta Euskal kultur erakundeak antolatu KIMU programaren baitan, Eneritz Zeberio, Amaia Hennebutte, Ander Fernandez eta Ainara Gurrutxaga aukeratuak izan dira haur eta gazteei zuzendutako arte eszenikoetan trebatzeko.

Programaren helburua da master-clasekin eta jaialdietako egonaldiak trebakuntza-ibilbide bat diseinatzea, haur eta gazteei bideratutako euskarazko arte eszenikoen sorkuntza aberrasteko eta dinamizatzeko.

Hona artista bakoitzaren egindako ibilbidea :

#### **Ainara Gurrutxaga**

##### Formakuntzak

- « Chorus and the Ensemble » | Londres, 2016ko urtarrilak 13 - 14
- « Adapting the Encounter » | Londres, 2016ko urtarrilak 15 - 16  
*Formatzailea : Complicite company (Londres)*
- « Osesioaren klinika. Sortzaileentzat seminarioa » | Donostia, 2016ko martxoak 3 - 10  
*Formatzailea : Matias Umpierrez (Argentina)*

##### Festibalak

- Mime International theater festival | Londres, 2016ko urtarrilak 11 - 18
- Feria de Teatro FETEN | Gijón Asturias, 2016ko otsailak 23 - 26
- Fimfa festibala | Lisboa, 2016ko maiatzak 8 - 18
- Festival Mondial des Théâtres de Marionnettes | Charleville Mézières, 2016ko irailak 22 - 25

## **Amaia Hennebutte**

### Formakuntzak

- « Théâtre en papier » | Espace Jéliote, Olorue, 2015eko azaroak 6 - 7  
*Formatzaileak : Alain Lecuq eta Narguess Majd*
- « Ombre et projection » | Espace Jéliote, Olorue, 2015eko azaroak 14 - 15  
*Formatzailea : Elise Vigneron (Entrouvert konpainia)*
- « Matériel et mouvement du corps » | Espace Jéliote, 2016ko apirilak 30 – maiatzak 1  
*Formatzailea : Elise Vigneron (Entrouvert konpainia)*
- « L'acteur en mouvement » | Espeletenia, Ziburu, 2016ko otsailak 4 - 5  
*Formatzailea : Jean-Philippe Lereboure (Compagnie des Syrtes)*
- « Voix chaos » | Roy Art Nazioarteko zentro artistikoa, Thoiras, 2016ko maiatzak 3 - 7  
*Formatzaileak : Yan Magilton eta Saso Vollmaier*
- « Voix et corps » | Roy Art Nazioarteko zentro artistikoa, Thoiras, 2016ko uztailak 12 - 17  
*Formatzaileak : Susan Weins eta Saso Vollmaier*
- « Voix et Chant » | Lafaurie Monbadon zentroa, Langon, 2016ko agorrikak 8 - 17  
*Formatzaileak : Jean Masse, Jacques Garros, François Bitner*

### Festibalak

- « Gretel », « Noir ou blanc », « Millefeuilles » erakusketa | Espace Jéliote, Olorue, 2015eko azaroak 6 - 7
- « Sur un petit nuage » festibala | Pessac, 2015eko abenduak 16 - 17
- « Momix » festibala | Kingersheim, 2016ko urtarrilak 29 - 31
- Lurraldeko programazioekin, orotara 40 bat ikusgarri begiztatuak.

## **Ander Fernandez**

### Formakuntzak

- « Enfance et écoute » | Errenteria, 2016ko maiatzak 21  
*Formatzailea : Xabier Erkizia*
- « Rythmes, voix et chansons » | Parise (Pantin), 2016ko azaroak 7 - 10

### Festibalak

- « Sur un petit nuage » festibala | Pessac, 2015eko abenduak 16 - 17
- « On the Edge » festibala | Birmingham, 2016ko uztailak 6 - 9
- « Tarrega » festibala | 2016ko irailak
- « Temps d'aimer la danse » festibala | Miarritze, 2016ko irailak

## **Eneritz Zeberio**

### Formakuntzak

- « Dantza formakuntza » | Hofesh shecter company, Londres, 2016ko uztailak 10 - 12
- « Peeping Tom » | Bartzelona, 2016ko uztailak 5 - 8

## Festibalak

- « Sur un petit nuage » festibala | Pessac, 2015eko abenduak 16 - 17
- Feria de Teatro FETEN | Gijón Asturias, 2016ko otsailak 23 - 26
- « Swop Roskilde » festibala | Dinamarka, 2016ko apirilak 28 – maiatzak 2

### **5.1.3. Euskal zinemaren hedapena**

#### **2016an EKEk « l'Atalante » zinegela laguntzen segitu du, euskal zinema Akitania mailan banatzeko esperimentazioan (diruz, ingenieritzan)**

#### Asier Altunak « Amama » 2015ean egindako filmaren banaketa

Filma 2016ko urtarrilaren 20tik gora banatu da Iparraldeko zine geletan, erakutsiz Atalanta zine gela / Cinéma & Cultures elkarteak eraman banaketa ekintza baliagarria izan dela, arrakasta handi bat lortuz.

Hau da, filmak 7 000 sarrera lortu ditu soilik Iparraldean, 10 200 baino gehiago lortuz orotara. Gure lurraldean, 330 saio baino gehio antolatu dira eta beste hainbat Biarnoan, Landesetan baita ere Frantzia batez ere Utopia zine gelen sarean (Bordale, Tolosa, Montpellier, Avignon).

Orotara, 25 zinegeletan ibili da Asier Altunaren filma. Gainera, hainbat zinema programen portadetan agertu da, ikusgarritasun handia lortuz.

Kalitate handiko obra hau banatzailerik gabe gelditu zen Frantziako sarean. Espianian eta Holandan soilik banaketa zirkuituetan ibili da. Emaizta horiek horrelako desmartxa baten beharra erakutsi dute zalantzarik gabe.

#### **Zenbakietan :**

- 26 zinegelek dute filma programatu, horietarik 20 Akitania Berrian ;
- Filmaren 300 saio baino gehiago izan dira, horien barne 20 topaketa Asier Altunarekin ;
- Orotara 2016ko agorrilaren 30ean, 10 200 sartzet, 2 029 Atalanten, 1 721 Donibaneko Select gelan eta 1 106 Utopia-Bordeaux gelan.

#### **Iparraldean**

- 10 geletan (Baiona, Biarritz, Donibane Lohizune, Urruña, Hendaia, Kanbo, Donibane Garazi, Maule, Donapaleu eta Hazparne) ;
- 7 000 ikusle ;
- 110 saio ;
- 15 topaketa filmaren egilea eta publikoarekin ;
- 3 hilabetez pantailetan.

#### **Iparraldetik kanpo**

- 16 geletan (Biarnoan : Salise, Orthez, Paue, Garlin / Landesetan : Peyrehorade, Capbreton, Mugronet / Utopia sarea : Bordele, Tolosa, Montpellier, Avignon, Bourg en Bresse, Port de Bouc, Bergerac, Argelès-sur-Mer) ;
- + 2 000 ikusle ;

- 200 saio ;
- 5 topaketa filmaren egilea eta publikoarekin.

### Gorka Bilbaok egin « Jai Alai Blues » (2015) filmaren banaketa

Dokumental hori pilota munduko publikoari dedikatua da, publiko zabalari baino. Kalitate handiko lana, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zena. Banaketa estrategia desberdina izan da : film egilea eta pilota munduko eragileak gonbidatu dira Jai Alaiak diren herrietan (Donibane Lohizune, Biarritz, Maule eta Donibane Garazi) emanaldi arrakastatsu batzuetan. Aldiz, beste geletan egindako usaiako banaketak emaitza aski xumeak izan ditu. Hala ere, filma lurraldeko gela guzietatik ibili da, erakusgarritasuna denei segurtatuz.

### **Zenbakietan :**

#### **Iparraldean**

- 10 geletan (Baiona, Biarritz, Donibane Lohizune, Urruña, Hendaia, Kanbo, Donibane Garazi, Maule, Donapaleu eta Hazparne).

#### **Iparraldetik kanpo**

- 3 gela (Sabres, Léon, Arudy) ;
- Utopia - Bordeaux gelan Bordaleko Euskal Etxearekin partaidetzan ;
- 976 ikusla orotara ;
- 42 saio ;
- 6 topaketa publikoarekin ;
- 3 hilabetez pantailetan.

EKEk bultzatzen eta laguntzen duen ekintza kultural honen bilana oso baikorra da, bai publikoaren aldetik, bai eta zinema mundu profesionalekiko ere.

Irailean, Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintzarekiko bere interesa erakutsi du eta horrela EKEk eta Zineuskadi elkarteak (Jaurlaritzaren egitura euskal zinemaren hedapena sustatzeko) hitzarmena sinatu dute, euskal zinema Iparraldean eta Frantzia ezagutarazten jarraitzeko.

Urri hasieran, CNC berak Atalante ohoratu egin zuen, banaketa jarduera honendako « Gela berritzailearen » saria eskainiz.

2017ko urteak esperimentazio hori konfirmatu behar du, EKEren sustenguekin eta langile berri baten enplegatzearekin.

### **Zinemaren eta ikus-entzunezkoaren garapenari zuzendu bilkuren animazioa, festibalen partaidetzarekin**

2016ko azaroaren 19an, Hazparneko « Zinegin » festibalean, Patxo Telleriak zinema gidoiari buruzko hiru orduko master-class bat eskaini du hamar bateko talde bati, berak zuzendutako « Bypass » filmari buruz. Parte hartzaileen oharrak oso baikorrak izan dira. EKEk ekintza sustatu egin du, Departamenduak festibala bere osotasunean lagundu duelarik.

#### **5.1.4. IBILKI : euskarazko antzerki programatzaileen sarean ezartzea**

Ibilki dispositiboaren kariatara, Senpere, Hendaia, Bidarte, Donibane Lohizune eta Mauleko herriak, Garazi-Baigorri eta Errobi herri elkargoak, bai eta Ote Lore, Biarritz Culture eta Eihartzea elkarteak biltzen dira Euskal kultur erakundearekin batera. Urtez urte, programatzaile sare horren parte hartzaile kopurua gero eta handiagoa da, euskal antzerkiaren aldeko benetako engaiamendua erakutsiz. Horrela, euskarazko antzerkiaren hedapenean inplikatuak diren lurraldeko programatzaile guzietan euren ikuspegiak trukatzeko dituzte euskarazko antzerki sorkuntzetan, beren ahalak eta gaitasunak batzen dituzte, komunikazio plan amankomun bat obratzen eta prezioen taula elkarbanatzen euskarazko antzerkia garatzeko asmoz. 2015/2016 denboraldian, Huts Teatroaren sorkuntza berria, « Etxekoak » izenekoa, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietako 10 tokitan aurkeztua izan da, programatzaileek EKEren babesarekin obra hori aukeratu eta gero.

Orotara 1 100 ikusle baino gehiago bildu dira lurraldean zehar, kalitate oneko sorkuntza horretaz gozatzeko, erakutsiz euskal antzerkirako publiko bat badela, eta horrelako lurralde mailako ekimen kulturala garatzekoa dela.

Huts Teatroaren « Etxekoak » Iparraldean - 2015/2016 denboraldiko datak eta tokiak :

- **Luhuso** | 2015eko azaroaren 1a
- **Larresoro** | 2015eko azaroaren 7a
- **Hazparne** | 2015eko abenduaren 5a
- **Hendaia** | 2016ko urtarrilaren 30a
- **Donibane Lohizune** | 2016ko otsailaren 27a
- **Miarritze** | 2016ko martxoaren 19a
- **Baigorri** | 2016ko apirilaren 9a
- **Senpere** | 2016ko apirilaren 15a
- **Bidarte** | 2016ko apirilaren 29a
- **Maule** | 2016ko maiatzaren 21a

## **5.2. Elkartekideei eta partaideei zuzendu laguntzak eta formakuntzak plantan ezarri**

Lekuko Laguntza Dispositiboaren (DLA) barnean, Sports Pyrénées Emplois 64 eta INSTEP Aquitaine egiturekin partaidetzan, EKEk bere kideei laguntza bat proposatu die, « Diruztatzeko iturrien bilaketa hobetu eta partaidetzak aniztu » gaiaren inguruan. 10 egitura bildurik, laguntza horrek taldeko eta banakako bilaldiak aldizkatu ditu, 2016ko irailaren eta azaroaren artean.



## 5.3. Publikoak eta guneak hedatu

### 5.3.1. Programazio kultural eta artistikoari laguntza

#### Herri Elkargoen laguntzea

##### Barne Lapurdi - Errobi Herri Elkargoa

2015eko azaroaren 23an, Errobi Herri Elkargoak eta EKEk urte anitzetako hitzarmena sinatu zuten euskal antzerkiaren alde. Hau da, EKEk « Hameka - KARRIKA Arteen eta euskal antzerkiaren Fabrika » bi norabideetan sustengatzen du :

- **Euskal ikusgarrigintzaren hedapena :**

- ✓ 2016ko martxoaren 6an Luhuson (Harri Xuri gela) :
  - El teatre de l'home Dibuijat (Castellano de la Plana, Valencia) « Harriz Harri » ;
  - Xentimorik Gabe (Donostia) « Putinen guardasola ».
- ✓ 2016ko urriaren 31 eta azaroaren 1ean Luhuso eta Larresoron :
  - Le Petit Théâtre de Pain, Artedrama eta Dejabu : « Francoren bilobari gutuna » (*antzerkia*) ;
  - Elirale : « Oa-huetak » (*dantza, antzerkia*) ;
  - Tchina Yo : « Menpe » (*dantza, txotxongilo*) ;
  - Tanttaka : « Muxua » (*antzerkia*).

- **Euskal antzerki amaturraren sustengua :**

Hameka KARRIKAKO arteen eta euskal antzerkiaren Fabrikak eta Euskal Kultur Erakundeak Iparaldeko euskal antzerki talde amaturrendako deialdi bat abiatu dute elgarrekin. Helburua Iparaldeko antzerki amaturraren sorkuntza laguntzea, taldeko kideei eta sortzaileei lan baldintza egokiak eskainiz material profesionala duen gela batean. Iduzkilore taldea hautatua izan da « Telesforo ez da Bogart » sorkuntzarako. Obra Senpereko Larreko gelan aurkeztu dute 2016ko abenduaren 17an, 150 ikusleren presentzian. Iparraldean bira bat egitea aurreikusita zegoen.

##### Baxe Nafarroako Herri Antzokia

EKEk Baxe Nafarroako Herri Antzokiak bultzatzen dituen programetako euskal taldeak laguntzen ditu (2015/2016 eta 2016/2017 sasoi-takoak) :

- Dantzaz konpainia (Donostia) « Txoriak » - 2016ko urtarrilak 22, Donapaleun (Saint Louis gela) ;
- Rouge Elea konpainia (Hendaia) « Ronde 2 ahizpak » - 2016ko martxoak 9, Donapaleun (Saint Louis gela) ;
- Rouge Elea konpainia (Hendaia) « Zuek » - 2016ko martxoak 11a, Aiziritzeko frontoian ;
- Huts Teatroa (Leioa) « Etxekoak » - 2016ko apirilaren 9, Baigorri (Plaza Xoko).

## Herrien laguntzea

### Baiona

2010ean eta gero 2013an arraberritua izan den Euskal kultur erakundearen eta Baionako hiriaren arteko partaidetza hitzarmenaren babesean, ekimen ezberdinak antolatuak izan dira, eta hauen artean, Baionako besten kari, « Kontzertu Atipikoak » deitu ikuskizunak.

« Kontzertu atipikoen » egitaraua :

- 2016ko uztailaren 29an | La collégiale elizan - Santa Izpiritu | Arnaga laukotea : Arriaga, Usandizaga eta Ravel konpositoreen obrak.
- 2016ko uztailaren 30ean | Protestanteen tenpluan | ENARA emazte koroa - koro zuzendaria : Jordi Freixa.

### Angelu

Angeluarrak kultura taldearen 50. urtemuga kari : « Soka » erakusketaren ezartzea, Pompidou galerian, 2016ko irailaren 7tik 24era.

Hainbat ekintza antolatuak izan dira (*ikus 4.2.2. parte*).

### Hendaia

Hendaiako hiria eta Hendaia Turismo egiturarekin partaidetzan, EKEk 13. « Kaperan A Kapela » kantaldi zikloa antolatu du, 2016an. Bi kantaldi iragan dira beraz, Abbadiako Jauregiko Kaperako Behatokian :

- Apirilaren 16a | Jean-Michel Bedaxagar, Mixel Etxekopar eta Sacha Standen
- Urriaren 8a | Naia Robles Aranguiz

### Bidarte

2016an, Bidarteko Herriak bat egin du euskarazko anterkiaren programatzaileen sarearekin. Karia hortara, Huts Teatroa konpainiaren « Etxekoak » antzezlanaren Family zineman aurkeztua izan da 2016ko apirilaren 29an.

### Donibane Lohizune

« SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketa aurkeztua izan da, 2016ko urriaren 1tik 30era Dukontenia gelan. Erakusketaren aurkezpenak animazio programa berezi baten antolatzeko parada eman du (*ikus 4.2.2. parte*).

## Liburutegien eta mediateken laguntzea

Lurraldeko liburutegiak eta mediatekak kultura animazio programak sortzen laguntzeko, EKEk, bere webgunean, liburutegiei eta mediatekei zuzendu kultura jardueren gida elebiduna proposatzen du, 2014az geroz. Gida horren edukia beti gaurkotzeko xedea bada. Ondorioz, 2016an, eguneratzen segitu dugu.

Bestalde, EKEren eginkizuna euskal kulturari buruzko baliabide gunea eta erreferentzia izatea da. Alabaina, eremu hortan, eta partaidetza artistikoari doakionez, gaitasuna eta jakitatea badu. Beraz, mediatekek galdeginik, EKEk kultura eta arte alorreko ingeniari-tza lana egiten ahal du, gertakariak plantan ezartzeko, hala nola autoreekilako elkarretaratzeak, erakusketak, mintzaldiak, atelier pedagogikoak, ...

Urteetan lurraldeko mediateka batzuekin sustatu partaidetzek, segitu dute 2016an :

### Baionako mediateka

« Irakur ! Euskaraz irakurri » - 2016ko urriaren 4tik 8ra

2012az geroz gertakari horren partaide izanik, EKEk euskarari eta euskarazko literatura ekoizpenari zuzendu ziklo hortan parte hartzen segitu du. Bilketaren barnean irakurketa publikoaren arloko profesionaleri zuzendu egunaren antolaketaz gain (*ikus 3.4. parte*), EKEk bere jakitatea ekarri du ere animazioen programatzeari doakionez.

### Miarritzeko mediateka

Duela urte batzuk sustatu eta 2012an partaidetza hitzarmen baten bidez formalizatu partaidetzak bere bidea segitzen du.

Gisa hortan, Morgancrea ikus-entzunezko ekoizpen enpresak ekoitzi « Ikimilikiliklik » erakusketa plantan ezarria izan da, 2016ko martxoaren 5etik apirilaren 2ra. Ikus-entzunezko muntadura interaktibo horrek bisitaria gomitatzen zuen Joxean Artze olerkariaren munduan barna bidaiatzera.

Erakusketaren karietara, Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa katedrarekin eta Biarritzeko Hiriko euskara zerbitzuarekin partaidetzan, euskarazko mintzaldi ziklo bat proposatu da, frantsesera egin aldibereko itzulpenarekin, 60-70 urteetako « Ez dok Amairu » kultura mugimendu aitzindariaren ezagutzeko :

- 2016ko martxoaren 11n | « Ez dok Amairuren garaia : hurbilketa bat », Ana Gandara adituaren eskutik ;
- 2016ko martxoaren 17an | « Ez dok Amairu eta dantza », Oier Araolaza adituaren eskutik (Biarritz Culture elkarteak « Bi Harriz Lau Xori » festibalaren barnean antolaturik) ;
- 2016ko martxoaren 24an | « Ez dok Amairu eta txalaparta », Enrique Hurtado adituaren eskutik ;

- 2016ko martxoaren 31n | « *Euskal Herriaren irudikapena Benito Lertxundiren kantagintzan* », Imanol Artola adituaren eskutik.

Bestalde, Daniel Landart idazlearen *Etxea eta Etxekoak* (Euskalzaleen Biltzarra, 2015) obraren inguruko irakurketa antzeztua antolatu da, 2016ko maiatzaren 12an, Daniel Landart, Kattalin Sallaberry, Pantxoa Carrère eta Pantxoa Etchegoin artistek parte harturik.

#### Hazparneko mediateka

Euskal dantzaren inguruko eduki aberats eta anitzak aurkezten dituen « SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketa multimedia plantan ezarria izan da, 2016ko apirilaren 9tik maiatzaren 7ra. Erakusketaren aurkezpenak animazio programa berezi baten sortzeko parada eman du (*ikus 4.2.2. parte*).

#### Donapaleuko mediateka

« SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketa plantan ezarria izan da, 2016ko maiatzaren 14tik ekainaren 11ra. Erakusketaren aurkezpenak animazio programa berezi baten sortzeko parada eman du (*ikus 4.2.2. parte*).

#### Angeluko mediateka

« SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketa plantan ezarria izan da, 2016ko irailaren 7tik 24ra. Erakusketaren aurkezpenak animazio programa berezi baten sortzeko parada eman du (*ikus 4.2.2. parte*).

### **5.3.2. Euskal kultura Akitanian hedatzea**

Ikusgarrien hedatzea ikusgarriak sortu aitzin pentsatu behar da. Beraz, EKEk ikusgarrien hedatzeko dituen sareei dei egin die, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo. Horrela Frantzia mailan eta nazioartekoan lan egiten duten hemengo eta kanpoko partaide kulturalen programazioan sorkuntza artistikoak sartzea proposatu du.

Gaur egun, Euskal Herrian eta, orokorkiago, Akitanian misioa duten erakundeek, hala nola Akitania-Hegoaldeko Eszena Nazionala-k, « Malandain Ballets Biarritz »-ek edo Kontserbatorioak Euskal Kultur Erakundea ontsa ezagutzen dute, partaide gisa. Adibidez, Cenongo Le Rocher de Palmer gelarekin horrela da. Urte anitzeko partaidetza hitzarmen bat izenpetu da egitura honen, EKEren eta Etxepare Institutuaren artean (Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu bat, Euskal kultura Euskal Herritik kanpo ezagutarazteko xedea duena).

Akitanian bereziki, elkarlan horren ondorio gisa, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Lurralde Lankidetzako Europar Elkarteak 2016ko eta 2017ko pentsatu « Aquitaine.eus » izeneko

ekintza-programa ontzat eman du, 2015eko azaroaren 27an Hendaian izenpetu hitzarmenaren bidez.

Akitaniako Eskualdeko Kontseiluko eta Eusko Jaurlaritzako kide hautatuz osatu mugaz gaindiko egitura honek diruztatu ekintzez gain, azpimarratu behar da EKE eta Etxepare Institutua euskal kultura Akitanian hedatzeko eragile erabakigarri gisa ezagutuak izan direla.

## **EKE eta Etxepare Institutua Akitania-Euskadi Euroeskualdean**

Azken urte hauetan, Euskal Kultur Erakundeak eta Etxepare Institutuak Lurralde Lankidetzako Europar Elkartearen 2014-2020 Plangintza estrategikoaren sortzean parte hartu dute eta « Euroeskualdeko herritartasuna » izeneko 1. ardatza eraikitzen lagundu dute. Ardatz hori, hein handi batean, Euroeskualdeko berezko hizkuntzen promozioari eta kultura Euroeskualdeko elkarlanaren antolatzeke egiazko tresna bilakatzeari zuzendua zaio.

Azken urte hauetan garatu programen eta trukaketen bidez, bi institutuek lotura lan hori egingiten dute, kultura alorreko talentuak eta gaitasunak sarean ezartzen laguntzeko.

Esperimentaziozko lehen faseari esker, munduko kulturei eskaini leku estrategiko batean (Le Rocher de Palmer) euskal kultura ezagutarazi ahal izan da. Bigarrena, hurbileko beste kultura egitura batzuekin, beren artistak Hegoaldean hedatzeko beharra duten Akitaniako eragileei zuzendu mugaz gaindiko baliabide gune baten egituratzean parte hartzea izanen da, edo/eta euskal artisten eta Akitaniako artisten arteko sinergia baten sortzea, artisten egonaldien bitartez, adibidez. Horrek, orokorki, Akitania-Euskadi eremu partekatu baten barne izatea sendotuko du.

*« Aquitaine.eus : Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal kultur sortzaileen lanak Akitanian hedatzea eta Euroeskualdean mugaz gaindi arte alorreko harremanak sustatzea »* izeneko hitzarmen hau ezin hobeki sartzen da Akitania-Euskadi Euroeskualdearen helburu nagusietan, erran nahi baita : « bi lurraldeen arteko elkarlana sakondu eta Europan leku adierazgarria lukeen harremanetarako, trukaketarako eta proiektu komunitetarako eremu zabal baten sortzean parte hartu », bai eta Euroeskualdearen nortasuna sendotzeko « kultura eta hizkuntza alorretako dinamikaren promozioa, eta bereziki euskal kultura eta hizkuntzarena, sortzeko gaitasun horren adierazpenei dimentsio berri bat emanez » aipatzen duen testuaren xedeetan.

Hitzarmen horren kariatara 2016-2017ko pentsatu jardura nagusiak :

### Karrikako antzerkia

Libourneko « Fest'Arts » festibalarekin partaidetza baten garatzea, 2016an :

- euskal konpainia baten egonaldia, hilabete batez ;
- festibalaren denboran, agorrilean, hiru konpainia han izatea, horietarik bat Leioako Umore Azokako lehiaketaren irabazlea izanik ;
- Euskadiko eta Akitaniako antolatzaileen artean laneko elkarretaratzeak antolatzea, bat Libourneko Festibalean eta bestea Leioako Umore Azokan.

### Musika

programazioa, Le Rocher de Palmer gelarekin, Cenonen :

- jazz musikaren, ohizko eta gaur egungo musiken inguruko kontzertuak elkarlanean obratzea :
  - ✓ Inaki Salvador Trio azaroaren 4an ;
  - ✓ Zeze Miege (musika elektronikoak), 2016ko maiatzaren 14an, « Musiques Métisses » festibalean, Anguleman.
- Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena euskal artisten egonaldia eta Master class ikastaldia, 2016ko azaroaren 22 eta 23an ;
- « Jazzaldia » festibaleko 50 urteetako afitxen erakusketa bat plantan ezartzea, 2016ko azaroan ;
- Hungariarekilako trukaketa artistikoak : « Orosz Zoltan Duo » hungariar akordeoilari handiaren kontzertua eta Philippe de Ezcurra euskal akordeoilariarekilako trukaketa (kontzertua, 2016ko urriaren 14an, Cenonen).

### Antzerkia

Antzerki anitz frantsesera itzultzea, Donostiako « Dferia » festibalarentzat, Akitaniako programatzaileei proposatzeko, eta Akitaniako geletan ikusgarri baten antolatzea, 2017an.

### Literatura

Frantsesera itzuli obrak aurkeztea, Bordeleko « Escale du Livre » ferian, euskal idazle bat han izanez.

### Beste

SOKA erakusketa, Lonsen, 2016ko azaroaren 8tik abenduaren 31ra.

## **« Voix du Sud » - Astaffort (Lot et Garonne)**

Frantziako eskualdeetako kultura eta hizkuntza alorretako eragileek elkar ezagutzen dute eta, aspaldi honetan jada, antolatzen dituzten gertakari handiak elkartzeko eta trukatzeko leku birlakatu dira, naturalki, elkarren kulturen ezagutzeko eta baloreen partekatze xedez. Joera natural horretan bermatzea aski zen, kulturen partekatzean urrunago joateko eta artistei memento berezi bat proposatzeko, non elkarrekin bizitzen ahalko baitziren, partekatzen ahalko baitzuten, sortzen ahalko baitzuten, beren kulturak gurutzatuz.

Eskualdeetako Hizkuntzen Elkarretaratzeen (Rencontres des Langues Régionales) helburua, baldintza horien sortzea eta sorkuntza partekatuzko eta joan-jinezko mugimendu baten abiatzea da.

Egiteko moldearen aldetik, eskualdeetako kulturen eragileentzat, egitasmo hori sareen animatzeko tresna da, bistan dena, eta eskualdeen arteko plataforma horrek Frantziako hizkuntzak eta kulturak Europan eta urrunago ere ezagutarazteko tresna gisa ukan dezakeen interesa aise ageri da.

Topaketak okzitanieraz, alsazieraz, kreoleraz, bai eta kulturen arteko elkarretaratzeak (Elkarretaratze Frankofonoak, 2006an) antolatu ondotik, Astafforteko « Voix du Sud » elkarteak es-

kualdeko hizkuntza batzuen arteko egitasmo bat antolatu nahi izan du. Alsaziera, euskara, bre-tainiera, korsikera eta okzitaniera lehenik gogora etorri dira, naturalki, bai eta itsasoz ha-raindiko Frantziako kultura batetik jin hizkuntza bat, hots, Réunion uhartekoa.

Elkarlan horietarik atera sorkuntzak egonaldi baten eta ikusgarri baten gaia izan dira, « Gare d'encontre » izenekoa :

- Egitasmoan parte hartu duten artistak :
  - ✓ Alsazia : Gaël Sieffert
  - ✓ Euskal Herria : Philippe De Ezcurra
  - ✓ Bretainia : Rozenn Talec
  - ✓ Korsika : Diana Saliceti
  - ✓ Okzitania : Coralie Nazabal
  - ✓ Réunion uhartea : Tias
- Egonaldi egunak : 2016ko uztailaren 13tik 21era : « Astafforteko elkarretaratzeak (Rencontres d'Astaffort) » : idazketa eta sorkuntza atelierra, Astafforten.
- 2016ko udan eta udazkenean, kontzertuak, munduko musiken festibalen edo elkarretaratzeen inguruan.

### **Akitania-Hegoaldeko Eszena Nazionala**

2016/2017ko denboraldian, EKEk eta Eszena Nazionalak, elkarlanean, euskarazko ikusgarri batzuk gauzatu dituzte, hala nola :

- « Imanol gogoan » kontzertua, Donibane Lohizunen, 2016ko otsailaren 20an ;
- Pier Pol Berzaitz eta Baionako Orkestraren egitasmoaren prestatzea, Joël Merah musikariak egin moldaketekin (EKE / Ravel kontserbatorioa / Akitania-Hegoaldeko Eszena Nazionalaren arteko koprodukzioa).

### **5.3.3. Mugaz gaineko kultura lankidetzak**

Mugaz gaindiko elkarlanaren zentzua mugaren eta lotuak zaizkion lurraldeen nozioaren hurbilketan berean agertzen da. Orduan, iduri zaigu euskal kulturak funtsezko eginkizuna bete dezakeela mugaren efektu hori ezabatzen laguntzeko, gure lurraldeko mugaz gaindiko eremuen integrazioa kausitzeko xedez.

### **EKE eta Donostia hiriarekin lankidetzak**

2010etik, urte anitzetako lankidetzaren kariatara, Donostia Kulturak eta EKEk 2010etik daramate euskal kulturaren aldeko eskaintza bat elgarrekin lantzen Iparraldean eta Donostia aldean. Partaidetza amankomun eta anitza (erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, ikusgarriak, kontzertuak, programak, ...). 2017 urteraino luzatuko da. 2016ko urtean, bi ekintza nagusi elgarrekin landu dira :

- *Bolada Txarrean* komiki kontzertua, ekintza berritzailea

2016ko apirilaren 21ean, *Bolada txarrean* komiki-kontzertua izan da Donostian. The Hyènes taldearen zuzeneko musikak Thierry Murat eta Rascal-en *Bolada txarrean (Au vent mauvais)*

komikian oinarritu irudiak lagunduko ditu, ikusgarri berezi batentzat. Hitzordua finkatua izan zen Intxaurren Kultur Etxean. Bideo muntaketaren bitartez, komikiko irudi eta testu guztiak « diaporama » dinamiko baten formarekin pantaila erraldoi batean erakutsi dira. Oholtza gainean, pantailaren ondoan eta ilunpean, kontakizunaren erritmoa segituz The Hyènes-eko musikariek zuzenean jo dute. Ikusmenak, musikak eta literaturak eskainitako emozio azkarrak bizi ditu publikoak.

- KIMU - haur eta gazte publikoari zuzendutako arte eszenikoen inguruko formakuntza (*ikus 5.1.2. partea*).

## 51. Durangoko azoka

2016ko abenduaren 2tik 6ra, Durangoko Azokak bere 51. edizioa ospatu du Bizkaitar hiriko Landako gunean. Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzaren 10. urtemugaren kariatara, Ipar Euskal Herriko argitaratzaileen ekoizpenak argiago agertu dira iaz.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera % 10a Iparraldeko ekoizpenak izan dira : 30 bat berritasun baino gehiago aurkitzen dira azokan urtero.

Aurten ere proposamen ainitza izan da Iparraldetik. Alabainan, ekoizpen kultural zabal bat aurkitu da : produktu « klasikoak » diren liburu, diska eta DVD-etaz gain, beste motako proposamenak aurkeztu dira ere, hala nola liburu-diskoak eta Seaskako egutegi berria.

Gerediagarekilako partaidetzaren hamar urteen kariatara gainera, ekitaldi ezberdin anitz proposatu dira. Urteroko liburu eta disko aurkezpenetaz gain, Azokaren gunetan Iparraldeko sortzaile eta eragile kulturalen presentzia askoz handiagoa izan da : hitzaldiak gure lurralde mailako egitasmo berritzaile batzuen aurkezteko, parte hartzeak mahain inguruetan, haur eta publiko guztiendako antzerki emanaldiak edo dokumental proiektioak. Azoka eta karririk animatu dira ere dantzaz, kantuz eta musikaz, giro herrikoi batean (*ikus egitaraua eranskin gisa*).

### 2016ko ediziorako datuak :

2016ko kartelaren sortzailea : Christine Etchevers

2016ko « Argizaiola » saria : Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin duten « xinaurrientzat ». Patxika Erramuzpe Ipar Euskal Herriarentzat

9 erakusmahain

35 berritasun : 19 liburu, 3 liburu-disko, 9 disko, 3 DVD eta egutegi bat

40 kultur ekitaldi : kontzertuak, hitzaldiak, proiektioak, haur eta publiko guztiendako antzerki emanaldiak, ...

Aurten, Euskal kultur erakundeaz gain, Iparraldetik 10 egitura izan dira azokan : 5 argitaletxe, 3 diskoetxe eta bestelako 2 egitura. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartu dira urte guziz bezala (Goienkale 21 - 29). Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkaturik zen.

Argitaletxeak : Maiatz, Ikas, Gatuzain, Zortziko eta Elkar

Diskoetxeak : Agorila, ZTK eta Saroia

Beste egitura motak : Aldudarrak Bideo eta Iparraldeko Ikastolak



### « Iparraldea Bertan » zikloa - Gipuzkoako Diputazioarekiko partaidetza

2016ko zikloa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean antolatu « SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketari osoki eskainia izan zaio, otsailaren 4tik apirilaren 3ra.

Erakusketa honen inguruko mediazio ekintza guziak Donostia 2016, Europako kultur hiriburua egitasmoaren programa ofizialean sartzen ziren (*ikus 4.2.2. parte*).

### « Iparra galdu gabe » zikloa - Getxoko Hiria

Bi urte guzietan, Getxoko Hiriak, Euskal Kultur Erakundearekin, Ipar Euskal Herriko Kulturari zuzendu gertakari bat antolatzen du. Horren kariatara, ekintza anitz plantan emanak izan dira.

Egitaraua :

- Urriaren 26a | « Neskatoak » eta « Dominika » izeneko dokumentalen aurkezpena - Jon Abril eta Eli Arrillaga ;
